

# ARRASATE <sup>PRESS</sup>

1993ko apirilak 2

187. zenb.

Elkarrizketa  
**Melissa Moye**

# Asteburua eskiatzen

## Kaskonategi (Musakola)

**A**rruena" moduen ezaunaue zan etxie, 1.989ko setienbrien 30ien bota zana.

Gaur Eroski dauen ezakerretara euenea. Bi bizitza zittuen ezker-eskuma. Etxie Sanperiona zan, honek Karmen Goienarteri itxi eutsen herentzian eta 1.993en basarrixte bota dan arte bizi izen dien famelixai saldu eutsen.

Eskumaldien Maria Luisa Egidazu Pagaldai bertako alabie, bere gizona Pedro Arana Belar Mietzerrekako Ugaldegaiñekue, Xefe euron semie eta Julin anaie Gregorio bizi zien. Honein aurreko jeneraziñokuek basarritarrak zien. Basarriko lanekin batera Ju-

lin aitte Sanperion morroi ibiltten zan bere zaldi, solo eta abarrak zainduaz, horrein artien Aldain euken mahastuixe.

Maria Luisan aitte ostera, Elman karretero. Maria Luisa bera fama haundiko joskiñe izen da. Lan honi jarein eutsen basarrittik urten biherrien topau zienien.

Bestaldetik, Julik plaza-rako jokerie euki dau. Bizikletan karrue atzetik lotute eroie-la etorten zan jenerue saltzen Musakolara: esnie, berdurie eta azken urtietan mizpillak ugeri. Juli bere gazte denboran bizikleta ibiltari gogorra zan, inguruko herri guztietara ailegau zan: Eibarrera, Urkiolara...



# ASTE SANTUA

## NATURAKO AKTIBITATEAK


Noguera Pallaresan (Lleida)

Apirilaren 8tik 12ra  
32.000 PTA

- Pentsio-erdiko egonaldia
- Prezioaren barruan: Rafting jeitsiera (egun 1)
- Todo terrenoz egun osoko irteera
- Kainoiak jeistea (egun 1)
- Uretako kirolak
- Parke Nazionalera bisita.

Erreserbak:

VIAJES ECUADOR. Kontzesiño, 2  
Tfnoak: 79 18 71 / 79 14 06 / 79 19 44



Zatoz ezagutzera

ZUHAITZ

jartetxea!



# ARAMAIO okindegia

Maisu Guridi, 3  
Tfnoa: 79 36 46


# ECUADOR

## Bidaiak

Kontzeziño, 2  
ARRASATE  
Tfnoa: 79 14 06



Aldizkari honek  
Gipuzkoako Foru Aldundiaren  
laguntza jaso du



Aldizkari honek  
Eusko Jaurlaritzako Kultura eta  
Turismo Sailaren laguntza jaso du

# Ikasi, eta...

**K**risia, iristen besterik ez zaigu hasi eta jakitunek ere ez dakite bihar-ko egunean zer etorriko zaigun. Leku askotan bezala, jende mordo dago langabezia Arrasaten, eta asko gazteak. Arrazoi sinple eta indartsu honek bultzatzen ditu gazte asko ikasketak egitera; berandua-go, lanpostu bat topatuko duten "esperantzak". Baina gauza asko dauzkate buruan; lanpostu gutxi daudela, kurrikulum onena eskatuko dutela, "modelo standar" baten barruan jantzi eta ibili beharko dela (ia derrigorrez) eta gainera aurretik esperientzia behar dutela.

Guzti hau jakinda, eta gurasoen etxetik kanpo bere lagunarekin bizi izatera joan ahal izateko egin behar-ko dituen urte askotako "bizitza-hipotekaren" kalkuluak bukatu ondoren, oraindik ere ikasketak egin nahi baditu, eragozpen "txiki" bat topa dezake: onartuko al duten. Beharbada, atsegin-go zenuke ikasketak horiekin zerikusia duen lanpostu batean lan egitea (gustoko duzuna beti egiten da gehiago eta hobeto), baina nota konkretu bat esigutu dezakete eta iristen ez bazara, ezinezkoa izan-

go zaizu honetarako prestatzea.

Holako gertaera batek ikasten jarraitze-ko (beste zerbait, noski) gogoak kendu ez badizkizu, frustratuta senti zaitezke atsegin ez duzun beste zerbaiten estudioak egiten. Ez dezagun ahaztu, bestalde, ikaslea motibatuta egon edo ez egotearen erantzukizun handia dutela irakasle askok. Zu nor zaren eta ze arazo eta aspirazio dituzun batere axola ez zaion horietako edozeini. Bere lan-orduak betetzen ditu, eta nahikoa da. Besteak dira azterketak gaintitu behar dituztenak, eta zurekin zerikusirik edukiko ez balu bezala... Erraza da ikasleak alperak direla esatea, zailagoa ordea (serioski saiatzen ez bazara) gaur egun jende askoren artean gehienbat, gazteek daukaten motibazio falta hori eurei berreskuratzen laguntzea. Zuk ematen diezun ikasgaia erakargarria egiten saiatu zaitez, ez ditza-tela automata batzuren bezala datuak barneratu. Beharbada, bere betiko bizimodu-  
duan, onerako aplikatzerik izan dezakete eta. Gaur egungo gazte askok ikasi egiten dute (asko gainera) ikas-teagatik, eta nota onak aterako dituzte. Hala ere, askotan ez dakite zer den ikasi dutena. Baina errua ez da euren baka-  
rrik, baita gurasoen ere, irakaskuntza sistematikoarena... Eta nora iristen da urrunetik dato-  
rren ibai hau, ba "kritika" faltaren itsasora.

**IKER BARANDIARAN**



## • ARRASATE PRESS •

**Argitaratzailea:** ARKO (Arrasate Komunikabideak) Azoka kalea, 1. 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa) Tfnoa: 77 05 65. Faxa: 77 09 40


**Laguntzailea:** Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Arantzazu Loidi. **Kazetariak:** Beñardo Kortabarria, Rosa Mondragon. **Publizitatea:** Kepa Oliden (77 08 15). **Administrazioa:** Agurtzane Gaintzarain (Tfnoa: 77 08 15). **Maketazioa:** Golo Arana. **Erredakzio-kontseilua:** Jon Mujika, Karmele Zuazubiskar, Jabier Ozaeta, Maribel Aranburu, Patxi Montero, Iñaki Mendiguren. **Kolaboratzaileak:** Mikel Irizar, Blanka Jauregi, ASA taldea, Sabin Arrieta, Jon Garai, Joxe Ramon Elortza, Amaia Jauregi-Aranburu, Udako Ingurugiro Eskola, Juan Bautista Agorria, Leintz Bertso eskola, Jose Mari Astigarraga, Jesus Larrañaga, Matilde Sainz, Iker Barandiaran, Jon Iñaki Lasa, Xabier Letona, Iñintza, Mikel Olabe, Mari Tere Alonso, Liherr Larrea, Antton del Campo, Sorginak, Kopti, Danel Goikolea, Iban Astondoa, Haritz Larrinaga, Cesar Cimiano, Leire Zubikarai, Koldo Zubizarreta, Joseba Vallés, Agerre, Mario Egües. **Banaketa arduraduna:** Jabier Ozaeta. © ARRASATE PRESS. **Tirada:** 6.300. **Logo-Gordailua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. Frankeo kontzertatua. **Inprimategia:** Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati).

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanien eta iritzien erantzukizunirik.



ARRASATE PRESS  
paper ekologikoan egiten da.

**Azaleko argazkia:** Besaide M. T.



## ZENBAKI

Aholkularitza

**Kontabilitatea  
Fiskalitatea  
Lana  
Juridikoa  
Finantzaketa  
Aseguruak**

Basabe industrialdea  
ARETXABALETAKO  
Tfnoa: 79 88 75

Biteri Etorb. 15  
ARRASATE  
Tfnoa: 77 12 39

# Memesa

79 42 22

## ARRASATE PRESS

### HARPIDETZAK



77 05 65

## ZENTRO PSIKOPEDAGOGIKOA

Zerbitzuak:

Diagnostikoa-Orientazioa

Estimulazio goiztiarra

Erreabilitazio funtzionala  
(Psikomotrizitatea eta  
hizkun berreziera)

Logopedia

Laguntza terapia

Mota guztietako eskola  
arazoak, enuresia  
(Ohe bustitzea),  
eukopresia

Ignazio Zuloaga kalea, 10

Tfnoa: 79 48 77

ARRASATE

••••

## “Dipu”, zer gertatzen da diruarekin?

Joan den martxoaren 11n, Bidebietako Polikiroldegian egingo den birgaitzearen berri argitaratu zen egunkarietan, eta guztira 650 milioi pezetako kostuaz hitzegiten zen.

Historia apur bat egiten badugu, polikiroldegi hori Kiroletako Kontseilu Gorenak eman zion Diputazioari.

Gaur egun donostiarrek gozaten dute, hango Udalak gestionatuta baina bertako mantenuaren zati bat denok ordaintzen dugularik.

“Herrietako” kiroldegiek inolako laguntzarik jasotzen ez dutela, edo laguntza horiek urtetan “izoztuta” egonda, “denon” etxean Kirolen Departamendua sortua izan arren eta horixe izan kirol eta instalakuntzetako Laguntzak emango dituena.

Antton Aranburu jaunak, Hirigintzako Diputatuak, eta donostiarrek ez dute arazorik, euren Hirigintza gestioanatu egiten delako eta ezta 650 milioitako “konponketaxoak” egiten ere.

Galdos Jaunari, Diputazioako Presidentea izanik, erraz ahazten zaio Oñatiera dela, eta gogorarazi egin behar zaio zergadunak denok garena, Gipuzkoako herri guztiak, Diputazioan daukaten amankomuneko “kaxa” horretarako.

Anoeta, Altza, Bidebieta eta antzeko Kiroldegietako

obrek, seriozki pentsa arazten digute diruak ez duela zertan Madrilera joan beharrik, ez eta Diputazioara ere, izan ere, Donostian baino ez da berrinbertitzen, eta gainerako instalazioak itxotzen eta etsita.


Egokiena dirua etxean bertan administratzea litza-teke, eta bide batez esanda, herrietako Udaletxeetan, eta ez Donostia hiri kirolzalea izatea nahi duten batzuen eskuetan, eta gainerakook itxaron egin behar.

**FERNANDO AGURIONDO ETA  
BESTE 94 SINADURA**

### Zuzenketa

184. aleko Txutxumutxuen artean Mariela Barquerok, Euskadiko Batxilergo saria irabazi zuela aipatzen genuen, baina ez Institutuko ikaslea dela eta atxabaltarra denik ere ez. 186. alean berriz, Frantziako Parentis en Born herri-tik etorritako 20 gazteekin elkartrukea egin zela aipatzerakoan ere, elkartruke hori Institutuko ikasleekin egin dela esan gabe geratu zen.

Zuzenketatik zuzenketara. Joan den astean Gomendioa aldrebes atera zitzaigun. Arrasatetik inprentara bidean iratxoak atera zitzaizkigun. Barka endredoak!



## Bakoitzari berea

Aspaldi esana da zuhaitz batek ez duela sarritan atzeko basoa ikusten uzten. Eta basoa, nekeza uka daitekeena, zera da: ARKO duela urtebete baino askoz errealtate sendoagoa dela alderdi guztietatik: askoz egoera hobean dago orain eta etorkizun itxaropentsuagoa du aurrean. Hau, jende askoren lanari esker lortu zen, zalantza barik. Baina batzuek ikaragarriko sakrifizio pertsonala egin dute, berek bakarrik dakite zenbat ordu eta zelako burukominak pasatu zituzten, beren buruarentzat oso onura txikiarekin, ongi egingdako lanak ematen duen atseginaz aparte. Hauetako bat, hurbiletik ezagutzen dudalako esaten dut, Mikel Irizar da. Eta beronekin lan-kide izan direnei buruz, beste horrenbeste pentsa daiteke. Bidezko eta beharrezko dela uste dut hau publikoki aitortu eta eskertzea. Basoan zuhaitz luzeago edo laburtxeagoak, lodiago edo mehexeagoak, geldituko dira, baina baso basoa izango da.

**IÑAKI MENDIGUREN**

# MENDI taberna

## Mendi da zure etxea

Maalako Errabala, 4 Tfnoa: 79 20 54 ARRASATE

# Ondo pasatzeko edatea derrigorrezkoa iruditzen zaizu?



**Irantzu Lz. de Bergara**  
Enpresarialeseko ikaslea (21 urte)

Ez, ez da derrigorrezkoa. Irteten naizenean edan egiten dut baina alkohola barik, beste gauza batzuk ere edan daitzke. Larunbatetan tabernaz taberna ibiltzea kenduta, ez dago aukera handirik.



**Rikardo Zubillaga**  
Langabetua (21 urte)

Ez, ez da derrigorrezkoa baina, segun ze egun den. Batzutan edan barik oso luze egiten da gaua, edateak lagundu egiten du gaua ondo pasatzen.



**Puri Garay**  
(41 urte)  
Etxekoandrea

Ez, ez, ondo pasatzeko edatea ez da beharrezkoa. Ondo pasa daiteke beste gauza batzurekin, beste modu batean.



**Cipri Hernandez**  
Kooperatibako langilea (33 urte)

Ez, nik uste dut ezetz. Ni irteten naizenean edaten dut, baina ez dut uste ondo pasatzeko beharrezkoa denik.



**Rosario Sagastume**  
(26 urte)  
Irakaslea

Ez, ez da bat ere beharrezkoa. Nik normalean ez dut edaten eta ondo pasatzen dut, besterik gabe.



**Virginio Garrote**  
Langabetua (21 urte)


Ez, ez da beharrezkoa. Badaude beste modu batzuk ondo pasatzeko.

Nik ere edaten dut, baina ez gehiegi.



**Rosi Alonso**  
Umezaina (25 urte)

Ez, ez da derrigorrezkoa. Nik gero eta gutxiago irteten dut eta normalean garagardoren bat edo edaten dut.



**Pako Garcia**  
Klikinako laguntzaile, (19 urte)

Nik uste dut baietz, nahiko beharrezkoa dela edatea. Beti laguntzen du hobeto pasatzen. Nik behintzat edan gabe baino hobeto pasatzen dut.

• **Txitxinpe** •

Berezitasunak:

Kafea, ardoa, urdaitegia,  
fruitu lehorrak

Arrasate Pasealekua, 33  
ARRASATE Tfnoa: 79 67 76



Liburu eta paperdenda  
Bidaiarako eta  
larruzko artikuluak

Iturriotz, 4 Tfnoa 79 14 84

**LAURA**  
**GAZTE MODA**

Erdiko kale, 30 ARRASATE Tfnoa: 79 57 20

**BEHARREZKO TELEFONOAK**

**Eritetxeak**  
 Arrasateko Eskualde-Ospit. .... 79 53 00  
 Igualetoia ..... 79 05 00  
 Santa Agedako Ospitalea  
 (gizonak) ..... 79 39 00  
 (emakumeak) ..... 79 44 11  
 Buru osasunerako zentrua ..... 79 90 11

**Gurutze gorria**  
 Bergara ..... 76 55 76

**DYA**  
 Antzuola ..... 76 62 91

**Anbulatorioak**  
 Arrasate (Larrialdiak) ..... 79 13 57  
 (Txanda hartzeko) ..... 77 03 46  
 77 07 21  
 Ofiati ..... 78 08 52  
 Eskoriatza ..... 71 44 52  
 Aretxabaleta ..... 79 74 58  
 Aramaio ..... (945) 45 51 16

**Anbulantziak**  
 Gipuzkoako ambulantiak ..... 45 87 44

**Udaitzaingoa**  
 Ofiati ..... 78 04 11  
 Bergara ..... 76 14 69  
 Arrasate ..... 79 14 39  
 Aretxabaleta ..... 79 10 52  
 Eskoriatza ..... 79 03 22

**Ertzaintza**  
 Arrasate ..... 79 71 99

**Suhiltzaileak**  
 Udai taldea ..... 79 09 00  
 Udai taldeko suhiltzaile  
 burua ..... 79 20 72  
 Zubillagako Eskualde-Parkea .. 78 28 00

**Matxurak**  
 Urak (udai zerbitzua) ..... 79 09 00  
 Elektrizitatea (Iberduero) ..... 79 05 81  
 Gasa ..... 900 40 05 23  
 79 78 44  
 79 76 78

**Garraloak**  
 Taxiak ..... 79 12 22  
 P.E.S.A. .... 79 14 19

**Hirugarren adinekoentzako zentruak**  
 Iturbide Egoitza ..... 79 72 11  
 Abaroa jubilatuen egoitza ..... 79 81 57

**Kontsumitzailearentzako informazioa**  
 Deba Garaiko Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Elkarte ..... 79 87 77  
 KIUB-OMIC ..... 79 51 55

**Monterongo liburutegia**  
 Monterra ..... 77 01 05

**GOARDIAKO FARMAZIAK**

**Ostirala 2**  
 Egunez: Español. Iturriotz.  
 Gauzez: Mozos. Pedro Deunaren.

**Larunbata 3**  
 Egunez: Corcuera. Musakola  
 Gauzez: Camacho. Oxirondo.

**Igandea 4**  
 Egunez: Irizar. Erguin.  
 Gauzez: Camacho. Oxirondo.

**Astelehena 5**  
 Egunez: Amezua. Santa Marina.  
 Gauzez: Puy. Barrenkale.

**Asteartea 6**  
 Egunez: Ruiz. Maala.  
 Gauzez: Guallar. San Antonio.

**Asteazkena 7**  
 Egunez: Morales. San Andres.  
 Gauzez: Estella. Mabiategi.

**Osteguna 8**  
 Egunez: Azkoaga. Ferrerías.  
 Gauzez: Mozos. Pedro Deunaren.

**2 OSTIRALA**

**ZINEA**  
 "En nombre de Caín" (7,10)

**MUSIKA EMANALDIA**  
 Louviers taldearen musika emanaldia. Gaueko 10etan. Eloorrioko Kafe Ateneon.

**GALIZIAKO PRODUKTUEN-DAZTAKETA**

Galiziako olagarroa, Ribeiroa eta Galiziako beste produktuen dastapena. Arratsaldeko 6etatik aurrera Doctor Bañez kalean. Gauean, "Verano Azul" taldearen jaialdia.

**ROCK KONTZERTUA**  
 "Etsaiak", "Anestesia" eta "Kemando ruedas" taldeekin Arrasateko Gaztetxearen aldeko kontzertua. Gaueko 10etan. Musakolako Kiroldegian. Sarrera: 500 PTA.

**GAZTETXEAREN ALDEKO KONTZERTUA**

Gaur ostirala, apirilak 2, Arrasateko Gaztetxearen aldeko kontzertua egingo da. Musakolako Kiroldegian, gaueko 10etatik aurrera, "Etsaiak", "Anestesia" eta "Kemando Ruedas" taldeen kontzertua hasiko da. Sarrera 500 PTAkoa.

**ERRAMU ZAPATUKO FERIA BERGARAN**

Bihar, apirilak 3, Erramu Zapatuko feria burutuko da Bergaran. Goizeko 9.30etan hasiko dira ekintza, ordu horretan feria hasiko da animalia desberdinak, artisauek eta baserriko beste produktu batzuekin. Eguerdiko 1.30etan Larrañaga eta Egileor bertsolarien emanaldia izango da Aranzadi ikastolan. Arratsalde partean, 4.30ak aldera Pilota partiduak hasiko dira Frontoian eta ordubetik beranduago, 5.30etan, herri kirolak. Gauean Novedades aretoan bertso saioa entzuteko aukera, Laxaro Azkune gai jartzaile eta Eguzkitze, Lazkano, Sebastian Lizaso, Gorrotxategi, Loidisalete eta Solozabal bertsolariak kantari.

**3 LARUNBATA**

**ZINEA**  
 "Cariño, he agrandado al niño" (5,7.30,10)

**DO DÍA DAS LETRAS GALEGAS**

12etan meza La Asuncion elizan, kalejira gaitero eta dantzariekin, ondoren muñeira erakusketa eta Tropicana orkestraren emanaldia.

**ERRAMU ZAPATUKO FERIA BERGARAN**

Goizeko 9.30etan Ibargarai, Fraiskozuri eta Simon Arrieta kaleetan feriaren hasiera. 1.30etan Larrañaga eta Egileor bertsolarien emanaldia Aranzadi ikastolan. 4.30etan pilota partiduak Frontoian...

**ESKOLA ARTEKO ABESBATZEN VI. TOPAKETAK**

Deba Garaiko Eskola arteko abesbatzen VI. topaketak. Arratsaldeko 4etan. Musakolako Kiroldegian.



**4 IGANDEA**

**ZINEA**  
 "Cariño, he agrandado al niño" (5,7.30,10)

**DO DÍA DAS LETRAS GALEGAS**

Goizeko 11etan gaitero eta talde folklorikoekin kalejira eta Ciudad de La Coruña taldearen emanaldia.

**MENDI IRTEERA**

Aketegi mendira irteera. Goizeko 9etan. Aretxabaletako Partenoitik. Itzulera: Egurdian. Murruxiko Mendizale Elkarteak antolatuta.

**DO DÍA DAS LETRAS GALEGAS**

Apirilaren 2, 3 eta 4ean "Do dia das letras galegas" inguruko ospakizunak egingo dira. Gaur ostirala arratsaldeko 6etatik aurrera Galiziako produktu desberdinen dastapena egingo da: olagarroa eta Ribeiroa, joan zen urtean 2.500 kilo saldu ziren. Larunbatean, berriz, goizeko 12etako mezarekin hasiko dira ekintzak. Ondoren, Galiziako gaitero eta Eibarko Galiziarren Etxeko dantzariekin kalejira egingo da erdialdeko kaleetan. San Andresen Galiziako muñerías erakusketa eskaini ondoren, Tropicana orkestraren emanaldia egingo da. Igandean bukatuko dira ekintza guztiak; goizeko 11etan gaitero eta talde folklorikoen kalejira eta arratsalde partean Ciudad de La Coruña taldeekin ekin-tzei amaiera emango dien azken kontzertua eskainiko du.

**5 ASTELEHENA****ZINEA**

"Cariño, he agrandado al niño" (7,9.30)

**NEGOZIAKETAK INGELESEZ**

Negoziaketak ingelesez egiten ikasteko mintegiaren hasiera. Arratsaldeko 2.30etatik 5.30etara. Ahizke-Cimen. Amaiera: apirilak 7an. Prezioa: 5.900 PTA.

**6 ASTEARTEA****ZINEA**

"Cariño, he agrandado al niño" (7,9.30)

**HITZALDIA**

"Bailarako egoera sozioekonomikoa eta langabezia" izeneko hitzaldia. Hizlariak: Juan Mari Otxoa, Jesus Mari Herrasti eta Antxon Mendizabal. Moderatzailea: Angel Mari Herrasti. Arratsaldeko 7etan. Aretxabaletako Udaletxeko Ganbaran. Beinke antolatuta.

**EAJko BILERA BEREZIA**


EAJko bilera berezia. Arratsaldeko 7.30etan. Arrasateko Batzokian.

**7 ASTEAZKENA****8 OSTEGUNA****IZENA EMATEKO AZKEN EGUNA**

61ko kintoen jairako izenak emateko azken eguna. Jaia: apirilaren 17an. Izenak emateko: Angel Lasagabaster, Angel Ayani edo Mario Ugarteri dei egin.

**"EUSKADI IRRATIA" IRRATINOBELA SARIA**

Euskadi irratia irratinobela lehiaketa antolatu du. Nahi duten euskal idazle guztiek har dezakete parte eta 15/20 minutu bitarteko iraupeneko 50 kapituloko argumentuaren sinopsia aurkeztu beharko dute. Euskadi irratia hautatu eta izendatuko lau kidek aukeratutako lan irabazlearen egileak miloi bat eta bostehun mila pezeta jasoko ditu. Lehiaketarako lanak igortzeko epea zabalik dago maiatzaren 21 arte. "Euskadi irratia, irratinobela saria", Euskadi irratia, Larramendi kalea 1, Donostia 20006 helbidera bidali behar dira lanak.

**ALAI ZINEAN: "CARIÑO HE AGRANDADO AL NIÑO"**

Badira hiru urte Joe Johnstonek "Cariño, he encogido a los niños" filmeak izugarriko arrakasta lortu zuela. Wayne Szalinski zientzi gizonak, jendeak bere zientzia serio hartzeko asmoarekin eginiko esperimendu baten ondorioz, Adam, bere seme gazteena, asmatu berri duen aparailuaren izpien aurrean jarri du eta bere molekula handitu eta erraldoi bihurtu, 34 metrotako umea izan arte.

**1993KO FAMILI ETA GIZARTE HEZIKETARAKO ZENTRUKO PROGRAMA**

**1993an Famili eta Gizarte Heziketarako Zentruan izango diren ikastaroen programa kaleratu da. Hiru ordutegi izango dira: goizez, arratsaldez edo gauez. Goizez patronaje industrial, yoga eta masaia ikastaroak izango dira; arratsaldez, berriz, sukaldaritza eta gozogintza, patronaje industrial, eskulangintza, garapen pertsonala, puntua eta gakorratza eta boliloak. Gaueko ikastaroetan, pintura eta marrazkia, sukaldaritza eta gozogintza, psikologia, eskulangintza, tapiza eta makramea eta gitarra landuko dira. Interesatuok, Santa Teresako Zentrura jo edo 79 04 59 telefonora deitu.**

**MARGO LEHIAKETA**

Datorren apirilaren 25ean Soraluzen burutuko den margo lehiaketarako arauak zehaztu dira jadanik. Lehiaketan bi maila bereiztuko dira: 14 urterartekoa eta 14 urtetik gorakoentzako. Nahi duten guztiek har dezakete parte eta lana burutzeko beharrezkoak dituzten materiale eta tresnak eraman beharko ditu. Lehiaketako sariak honako hauek izango dira: olio margoen kutxatila betea, margogintzarako kabailetza eta pastel margoen kutxatila 14 urtetik beherakoentzat eta hortik gorakoentzat, 60.000 PTA eta 30.000 PTA.

**BAILARAKO EGOERA SOZIOEKONOMIKOARI BURUZKO HITZALDIA**

Aretxabaletako Beinke elkar-teak "Bailarako egoera sozioekonomikoa eta langabezia" izeneko hitzaldia antolatu du datorren astearterako, apirilak 6. Partaideak honako hauek izango dira: Juan Mari Otxoa, FINECO S.V.ko inbertsio aditua; Jesus Mari Herrasti, MCCko Kongresuko lehendakaria eta Antton Mendizabal, EHUKo ekonomia irakaslea. Moderatzailea Angel Mari Herrasti, EHUKo irakaslea izango da. Aretxabaletako Udaletxeko Ganbaran arratsaldeko 7etan hasiko da hitzaldia.

“Kooperatibak utopia polita izan ziren ikuspegi sozio-ekonomikotik begiratuta. Baina nire ustez lehengo edukin soziala galdu egin da eta ekonomiko hutsak irauten du. Kooperatiben hasierako proiektua ez dela erabat osatu iruditzen zait. Herren antzean geratu da. Badakit jendearen intentzio ona ere egon dela, baina errealitateak irentsi egin ditu intentzio onak. Hala ere, planteamendua oraindik ere ona dela iruditzen zait niri?”

**Antxon Urrosolo**



“Komunikabideetan agertzea askotan iruditu zait gehiegizkoa dela niretzat, eta edonon ezagutzen naute. baina jende seropositibo gutxi atera da publikoki arazoari aurre egiten. Txarra da, baina beharrezko deritzot kontzientziatze kanpainari ekin eta beste seropositiboak ere beldurra galtzen hasi eta kalera atera daitezten. (...)

1990ez geroztik ez da kanpaina instituzionalik egin, “jar ezazu/jar iezaiozu” edo “preserbatu”ren ondoren bat ere ez. (...) Orohar burrunba handiegia dago HIESaren inguruan, baina badirudi hankasartze askoren ondoren kazetari eta gizartearen beraren ezagupen mailan ere zertxobait hobetzen hasi dela.(...)

“Nire begietara so egin eta gero ni baztertzeko gai zara?” galdetuko nioke edonori. HIESak jota dagoen gaixoari animoak emango nizkioke etxean ez geratzeko eta, bera gaixotasuna beste bat baino gehiago ez dela konturatzuz, aurre egin ahal izateko”.

**Jon Salaberri** 93-3-28

**ARGIA**

## Zergatik “Dia das letras galegas”-en antolakuntza?

**B**eno, iaz hasitako ekimena da, hau beraz aurten hiru egunez luzatuko den ekin-tza-egitaraua bigarren goz antolatzen dugu. Beste herri batzuetan ere horrelako gauzak antolatzen zirenez, iaz 5-6 lagun bildu ginen eta antolatzea erabaki genuen, nolabait Galiziako ohiturak mantentzearren eta hemengo jendeari eta hemen jaiotako gure seme-alabak hango jaiak nolakoak diren ezagutaraztearren.

Aurten jaiak bigarren goz antolatzeari garrantzi handia ematen diogu, Xacobeoa da eta.

Momentuz, antolakuntza gabiltzan bost lagunen ideia besterik ez da, baina egun batean Arrasaten bertan Galiziako Etxea izatea gustatuko litzaiguke. Baina, jakina, horretarako dirua behar da eta guk ez daukagu, jendearen laguntza eta lanegiteko konpromezua eskuratu beharko genituzke. Garaiak berak, ez dirudi egokiena denik, beraz presa handi barik hartu beharreko ideia dela uste dugu. Antolatutako jaiak bukatzen denean, agertzen diren gailego guztiekin bilera egitea gustatuko litzaiguke, ea Galiziako Etxe bat egiteaz zer iritzi duten jakiteko, eta jendea animatzen den ikusteko. Lehenengo jendearen disposizioa ezagutu nahi dugu eta ea datorren urtean lanean hasi gaitzkeen, Galiziako kultura euskaldunen artean zabaldu eta ohiturak gordetze-ko lan handia egin dezake horrelako elkarte batek eta. Dagoeneko Eibar, Bilbo, Galdakao eta Donostiako Galiziako etxeekin harremanetan gaude eta antzerako zerbait egitera animatzen gaituzte, izan ere Arrasaten 400 gailego baino gehiago bizi gara.



**Manolo Moreiras,**  
Antolazaileetarikoa bat



# LASAGABASTER

**ZURE KONFIDANTZAZKO DENDA.**

Zerkaosteta, 1 eta 2 ARRASATE Tfnoa: 79 27 27 / 79 13 55



**Ekintza ugari Korrikaren inguruan**

Aste honetan Korrika pasa behar zela eta, ekintza ugari burutu ziren pasa den astean, asteburuan batez ere. Aste osoan zehar duela bi urteko Korrikari buruzko erakusketa egon zen ikusgai Harresi aretoan, rock-a eta euskarari buruzko mahain-gurua burutu zen ostegunean. Asteburuan sartuta, AEK-Erdi euskaltegiak antolatutako bertso-triki afariaren inguruan jende ugari bildu zen ostiralean. Larunbata, berriz, Korrikaren kuestazio egun izendatu zen eta egunean zehar baita makina bat ekintza burutu ere: dantzariak, Korrika Txikia, umeen jolasak, Goikobaluren emanaldiak... azken finean giro jatorra eta ekintzen inguruan jende ugari. Kuestazioan 125.000 PTA bildu ziren.

**Ingurugiroari buruzko ihardunaldiak**

Ingurugiro Eskolak antolatuta, astean zehar ingurugiroaren arazoei buruzko ihardunaldiak burutu ziren. Ihardunaldien helburua, jendeari azaltzea ingurugiro arazoak zeintzuk diren eta irtenbideak zeintzuk izan daitezkeen. Azalpen horiek egiteko, astelehenetik ostegunera arazo desberdinei buruzko hitzaldiak burutu ziren eta ihardunaldiei amaiera emanaz, ostiralean ehizari buruzko mahaingurua burutu zen.



**Sindikatuak INEM-a okupatu zuten**

Pasa den ostiral eguerdian, Deba Garaiko ELA, LAB, CCOO, KT eta ESK sindikatuak deituta, 200en bat langilek INEMeko bulegoak okupatu zituzten eguerdiko 11etatik 12etara bitartean. INEMeko okupazioa bukatu ondoren, langileek manifestaldia burutu zuten herriko kaleetan zehar. Sindikatuak enplegua eta industrializazioaren alde prestatu duten mobilizazio egutegiaren barruan kokatu behar da ekintza. Egutegi horren arabera, Arrasateko Udaletxean oraindik pleno bat burutu eta hilabete honetan Bergara eta Arrasate arteko martxa egin behar da.

**AEDko batzar orokorra**

San Viator Ikastolako Areto Nagusian AED Elkartearen urteko Batzar Nagusia burutu zen joan den astean. Batzarrean, iazko iharduera eta diru-kontuen berri, aurtengo egitasmoa eta aurrekontuak ezagutu eta Zuzendaritza Batzordearen berritzea egin zen. AED gero eta handiagoa izan beharrean, bere lan sailak neurri bateko independentzia eta autogestiora jo behar dela adierazi zen eta bazkidegoari protagonismoa eman behar zaiola, jendearen parte hartzea lortuz. Urteari begira, sail berriak sortzea posible izateaz

aparte, gazte eta kultura mailan lan gehiago egin beharra azpimarratu zen.

**Kiroldegikoek Diputazioaren jokaera salatu**

Kiroldegiko arduradunek eta bertan egunero ibiltzen den zenbait jende sinatutako gutun baten bidez, Diputazioak kirol arloan duen jokaera salatu zuten. Sinatzaileek ziotenez, Musakolako Kiroldegiko proiektua bi urtetan atzeratu da eta, Diputazioak Donostiako Bidebietako Kiroldegia konpontzeko 650 milioi eman ditu. Sinatzaileen ustez, Diputazioak kirol-

arloan zeharo ahaztuta dauzka herriak eta ahalegin gehienak Donostian bideratzen ditu.

**Sexualitateari buruzko tailerrak**

Ikasle, guraso, aisialdi monitore eta irakasleen partaidetzaz, HIES Ekime-nak antolatutako Sexualitateari buruzko tailerrak ari dira burutzen, Gloria Gonzalez eta Milagros Rodriguez psicologa eta sexologen zuzendaritzapean. Tailer hauek 20 ordutako iraupena izango dute guztira eta 216 pertsonak hartuko dute parte: 76 guraso, 50 gazte, aisialdiko 40 monitore eta 45 irakasle.

**Ibai-Arteko ikastaroa**

Ibai-Arteko antolatuta, erosketen gestioari buruzko ikastaroa burutu da. Ikastaroan dozena bat denda ik hartu dute parte.

**JAIOTZAK**


- Markel Rodriguez Alcaide. Martxoaren 22an.
- Eder Barranca Dominguez, 26an.

**EZKONTZAK**

- Jose Manuel Mendez Torres & Klara Isabel Martí Gomez. Martxoaren 26an. Zibilez.

**HILDAKOAK**

- Marcos Urteaga Erostarbe. Martxoaren 24an. 87 urte.
- Francisco Leon Rodriguez. 24an. 50 urte.
- Benita Zabala Madina, 27an. 84 urte.




Olarte, 30 etxabea.  
Tfnoa: 79 77 11  
Faxa: 79 77 11  
ARRASATE  
Postakutxa: 118



**GIZON ETA  
EMAKUMEAREN  
MODA**

Otalora z/g  
Tfnoa: 79 20 50 ARRASATE



MIKEL IRIZAR \*

## Astalelengo!

**Amaitu** da bidaia. Edo hobeto, bidaia hau, ARKOko lehendakaritzan egin dudana. Nire denbora libre guztia eskatuko duen arazo pribatua sortu zait berriki eta ARKOkoa utzi beharrean nago.

Edozein modutan, ona eta sana da deritzot karguak sarri aldatzeari, erakunde eta elkarte herrikoietan behintzat. Horrelakoetan, ez ditut batere gogoko probidentzialismoak eta ordezkazaintasunak. Eta ARKOren kasuan, elkarte desiragarria bihurtu daitekeen neurrian interes pertsonal edo sektarioentzat, prezidente egokia da inongo borrokarik gabe Zuzendaritza Batzordearen gehiengoa aldatzea.

Bertan eman dudana denboraz, berriz, sentimendu ezberdinak darabiltzat, satisfakzioa nagusi. Nik ARKOri eman diodana beste jaso dut beragandik, dudarik gabe. Pertsona aberatsagoa naiz orain, dirutan ezer ko-

bratu ez dudana arren. ARKO ere aberastu dela esatera auzartzen naiz, edo Batzar Orokorreko espresioa erabiliz "lekukoa hartu genuena baino aurrerago uzten dugula", zinez uste dut.

Ardura hartzen dutenei, ahal dudana laguntza eskeini, eta zorte on! opa nahi diet. Urtebete barru eurak ere lekukoarena esateko moduan egon daitezela.

Laguntzen dutenei, Udala, erakunde, bezero eta kolaboratzaileei, eskerrak eman eta jarrai dezaten eskatu. Herritarrak, berriz, parte hartzera gonbidatu, ateak zabalik daude. Inportantea den zerbait ari gara eraikitzen denon artean.

Elorrioko Marik, despediden betikotasun arriskua uxatzeko erabiltzen duen konjuroa botako dut nik ere: Astalelengo!

**ARKOko**  
LEHENDAKARI OHIA

## USTEAK USTE


Ez dut ulertzen. Ez dut ulertzen zerbaiten alde egon edo horrela adierazi -euskara kasu honetan- eta aurka jokatzeari.

Kontraesanak denok dauzkagu, baina gainditzen saiatzen gara eta ez eurok eusten edo handitzen.

Bestalde, eta alderdi politiko baten militatzen duena, beti saiatuko da alderdiaren alde egiten, nahiz eta gauza batzutan ados egon ez eta amore eman behar. Baina amore emate horrek bere mugak izan beharko ditu bai norberaren kontzientziarekin bizi ahal izateko, bai amore emate horretan urruti joanez gero, sor daitezkeen ondorioak aurkakoak izan daitezkeelako.

Zergatik diodan hau? Hemen denok dakigu zer den Korrika, zertarako eta zergatik antolatzen den, eta gizarte mailan duen onarpen eta babes zabala. Baina hemen batzuegatik ez da Udalaren izenean Korrikako kilometrorik erosi. Eurok jakingo dute zergatik. Baina hemen diru publikoa ez litzateke batzuen interesen alde bakarrik erabili beharko, eta egia bada euskara denona dela, eta egia bada, gutxi dela plazaratu duten bezala, denon alde lan egiten dutela eta ez batzuen alde bakarrik, orduan, hori frogatzeko aukera polita galdu dutela esango nuke.

AMAIA JAUREGI-ARRABURU



- Gauzak gordetzeko kutxa metalikoak
- Otzaratzarrak
- Giltzak gordetzeko armairuak
- Erremintak eramateko gurdiak
- Erremintak gordetzeko armairuak
- Lan egiteko aulkiak

Notario Etxagibel (Musakola Auzoa)  
Tfnoak: 79 58 11 / 79 59 76

## BURGALES JATETXEA

Jaki goxoak eta giro atsegina

Durana, 12  
ARETXABALETA



Eskola Politeknikotik irten eta Stafford-en graduatutako ikasleak.

## Goierren bidez 31 ikasle gehiago atzerrian

Une honetan Eskola Politeknikotik irrendako 70 ikasle daude atzerrian ikasten, eta datorren ikasturtean Goier programaren bidez joanda, 31 gehiago izango dira. Goier programaren bidez, Eskola Politeknikoan ikasketak burutzen dituztenek, atzerrian espezializazio-ikasketak egiteko aukera izaten dute. Ikasketa hauek egiteko, ikasleek Politeknikan lortutako kalifikazioei begiratzeko zaie, eta normalean kalifikazio onenen jabeek izaten dute atzerrira joateko aukera.

Frantzia, Italia, Britainia Handia, Suitza, Estatu Batuak eta Alemaniako ikasketxe onenarietara joaten dira Goierren bekak eskuratzen dituzten ikasleak. Eskolaren diruaz aparte, Foru Aldundiek, Jaurlaritzak, Arrasateko Udalak, MCC-k eta Ikerlan-ek jartzen dute dirua proiektuan. Ikasleen beharren %70a betetzera iristen da beka eta horrek bizitza estua eramatera behartzen ditu irakasleak. Pisuetan edo unibertsitateetako

erresidentzietan egoten dira normalean, eta nahiko bizi-baldintza pobreetan.

Dirulaguntza bera estimagarria izanda ere, atzerrian ikasteko aukerak du garrantzia gehien, normalean oso zaila izaten baita ikasketxe horietan tokiren bat aurkitzea. Normala denez, atzerrira joan aurretik, behin iritsitakoan ahalik eta arazo gutxien izateko, hizkuntz ikasketa bereziak jasotzen dituzte Ahizkeren eskutik.


1992-93 ikasturtean Goier programetan sartu ziren arrasatearrak, honako hauek dira: Maite Etxeberria Grenoblen, Asier Agirregomezkorta, Ane Miren Leibar eta Xabier Orobengoa Nottingham-en, Mikel Larreategi eta Josu Ugarte Stafford-en, Alfonso Goñik Newcastle-n, Eugenio Zabala York-en eta Jon Urkiola Milanon. Datorren urtean, berriz, 4 arrasatear joango dira atzerrian ikastera: Xabier Bergaretxe, Aitor Iria, Igor Leturia eta Xabier Mendizabal.

## Max Centerren inbertsioa Santanderren

Barakaldon aurrera eramaten ari den proiektuaren ondoren, Max Centerrek 9.000 milioitako inbertsioa egitea erabaki du Santanderko Camargo herrian. Eroski kooperatibak 120.000 metro karratutako lur-saila erosi du Max Centerren hipermerkatua eraiki dezan; eraiketaren ordainez, Eroskik hipermerkatuaren %40a eskuratu ahal izango du, 16.000 metro karratutako hipermerkatua eraikitzeko. Eraikitako gainontzekoa, 40.000 metro karratu, bertako dendariak eta detailistek hartuko dute.

## Obrak gelarazi Txotxuenen

Txotxueneko obrak zirela eta, Gipuzkoa Etorbideko hainbat bizilagunek Udalarri idatzi bat aurkeztu zioten, gaez egiten ari ziren obrek zarata gehiegi eragiten zutela adieraziz. Gero ikusi zenez, auzotarrek arrazoi osoa zuten kexa azaltzeko, Udalak etxe barruetan egindako zarataren neurketek, argi utzi zuten legeak onartzen duena baino handiagoa zela eta zarata, 45 dezibelio, legeak onartzen duen gehiena 30 dezibelio izanda. Gauzak horrela, hori gutxitzeko neurriak hartu artean, gaez egiten duen lana bertan behera uztea agindu dio Udalak Brues enpresari.



### EGVZKIGRAF

Grafikagintza. Tipografia.  
Offset industrialia


Basabe bidea, A-2 ARETXABALETA Tfnoa: 79 29 41

- Liburuak
- Aldizkariak
- Katalogoak
- Liburuskak
- Merkatal inprimakiak
- Bulegoko materiala

### • ARTEA •

Eskulanak eta lientzoak  
ENMARKAZIOAK  
Laminak, Izpiluak,  
Margoak

Ferrerias, 11 Tfnoa: 77 10 95  
ARRASATE



Azken 15 urteetako Arrasateko lanaren bilakaera aztertu nahi du Udalak.

## Obrak Santa Agedako gizonezkoen ospitalean

Santa Agedako San Juan de Dios gizonezko ospitalean, zenbait obra burutuko da Udalak baimena eman ondoren. Santa Agedan egin zen lehen pabiloia zaharkituta dago eta gaur eguneko beharrei begira ez du funtzionaltasunik, beraz bertako eskailera guztiak kendu egingo dira eta ohatilak sartzeko balio duen igogailua jarriko da.

Zine-aretoarekin antzerako zerbitu geratuko da. Gaur egun, zine-aretoak ez du garai bateko funtziorik betetzen, eta mantentzea ere garesti samarra irteten zaio ospitalari, filmeren bat bota nahi duenean tresneria erabiltzen dakien norbait ekarri behar

izaten da eta. Zine aretoa, beraz, zatitu egingo da eta hainbat gela jarriko dira bertan, bata bideo eta pantaila erraldoi bategaz, zine aretoaren funtzio bera bete asmoz. Barruan ezezik, kanpoan ere egingo dira obrak, kasu honetan garrantzitsuena teilatuaren erretila. Guztira, 80 milioitako aurrekontua dute obrek.

Orain egingo diren obrak ez dira azkenak izango Santa Agedan, lau pabiloi berri eraikitze proiektua ere martxan dago eta. Proiektu honen arabera, pabiloiak bi fasetan egingo dira eta bata psikogeriatriko bezala erabiliko da.


## Zerbitzu tekniko berria Fagorren

Fagorreko edozein elektratresna duen edonor, bost urtetako garantiaz gain, zerbitzu tekniko berri bategaz baliatu ahal izango da. Fagorrek zerbitzu berriaz, bere markako edozein elektratresna erosten duenari, edozein aberia bi lanegunetan konpontzeko konpromezua eskaintzen dio. Horren berri emanez, Estatu osoko banatzaileekin bileretan dabilza Fagorreko ardura-dunak.

## Gobernu Batzordeak Korrikarako laguntzak


Nahiz eta Udal bezala Korrikako kilometrorik erosi ez, EAJ, EA eta HBK osatzen duen Gobernu Batzordeak pasa den astelehenean, Korrikari azpiegitura gastuetarako 37.000 PTako dirulaguntza eman dio. Orain bi asteko Gobernu Batzordean ere, Korrikaren inguruan burutu behar ziren ekintzentzat zitezen erraztasunak ematea erabaki zen.

# FAGOR



**TALDE INDUSTRIAL KOOPERATIBOA**

GURE ESKUALDE ETA EUSKADIREN ZERBITZUAN  
ELKARLANEAN ARITZEN DAKIEN AGERBIDEA



## JOSU

TXOKIATEGIA  
KAFETEGIA

Elkano, 25  
ARRASATE  
Tfnoa: 77 03 66



**Alkoholarekin arazoak daukazu?**

**Agian, "Alkoholiko Anonimoek" lagundu ahal dizute!!**

**Alkoholiko Anonimoak**

3. areako Informazio bulegoa  
(Gipuzkoa)  
Tfnoa: 61 93 38



ARKOren bigarren Batzar Orokorra Monterronen burutu zen.

## ARKOk bigarren Batzar Orokorra burutu du

ARKOko urteko Batzar Orokorra burutu zen pasa den asteartean Monterongo hitzaldi-aretoan. Batzarrean, iaz burututako lanen xehetasunak eta diru-kontuen berri eman zen, Arrasate Pres eta ATBren arrakasta gorai patuz eta arlo ekonomikoaren egoera justu samarra adieraziz.

Aurrera begira, 1993ko aurrekontua azaldu zen, 65 milioitakoa gutxi gorabehera, iaz baino %11'9a baino gehiago, eta hortik 24 milioi inbertsionarako. ARKOk aurtengo urterako aurrakusten dituen ildo nagusien artean, berriz, erredakzio bateratuaren finkatzea eta irratia sortzea izango lirateke ga-

rrantzitsuenak. Ildo nagusien haritik sortu zen ARKOk Batzar Orokorreko eztabaida bakarra, langilegoa eta Zuzendaritza Batzordearen artean, langilegoari dagozkion gai batzuetako desadostasuna dago eta.

Azkenik, Zuzendaritza Batzorde berriaren aurkezpena egin zen eta Mikel Irizarren, orain arte ARKOk lehendakari izan den agurra. Batzorde berria, honako lagun hauek osatuko dute: Arantzazu Loidi, Agurtzane Ganzarain, Iñaki Aranburu, Esteban Muruamendiaraz, Iñaki Bordes, Xabier Diez, Lurdes Nafarrate, Andoni Urzelai, Jesus Mari Zenigaonaindia eta AEDko ordezkari batek.

### Uharkapeko hormaren proiektua Euroestudiosentzat

Uharkape ainguratutako hormaren proiektu berria Euroestudios enpresak egingo du. Lan horregatik 1.965.000 PTA ordainduko dizkio Udalak.

### EAJren batzarra

Arrasateko EAJk dei bat luzatu die afiliatu guztiei, astearte honetan, hilak 6, burutuko bilera berezira agertu daitezten. Bilera arratsaldeko 7.30etan burutuko da Batzokian.

### Jubilatu etxeetako likidazioa mahai gainean

Iazko likidazioa amaitu ezinda dabilta aurtun Arrasateko jubilatu-etxeek. Izan ere, aipatutako likidazioa bi aldiz aurkeztu zaio Udaletxeko Gobernu Batzordeari eta honek bietan mahai gainean utzi du, arrazoi berberagatik: diktamenean ez delako inolako azalpen ekonomikorik egin.



## Parques y Jardines

**Parke eta lorategien sorkuntza.**

**Larazaintzako mantenimendua ora har.**

**Landare-birsorkuntza hidroereintzaz.**



Casa-Torre kalea. Tfnoa: (94) 681 90 82 ABADIÑO (Bizkaia)



Pasa den igandean Gipuzkoako Eskola Publikoek urteko jaia ospatu zuten La-sarteko Hipodromoan. Arrasatek ere 600 lagun inguru joan ziren bertara, ikasle, guraso eta irakasle artean. Bes-

teak beste, San Andres eskolako umeek bertsotan ere egin zuten. Susana, Vanessa, Diana, Nerea, Maite, Reyes, Esther, Pili, Sheila, Silvia eta Amaia ikasleak eta Xabier Arruti irakaslea.

**Modelo izateaz amets egin duzu sekula? Hala izan bada, hemen duzu zure aukera: ikus-entzuteko produkzioa egiteko modeloen bila dabil Deba Garaiko HIES Ekimenak. Hori dela eta, interesatu guztiei zabaltzen zaizue deia eta HIES Ekimenak duen egoitzatik pasatzeko gonbidapena egiten.**



Aitor Olaskoaga eta Ana Basterretxea otsailaren 27an ezkondu ziren Zumarragako Antzinako Basilisan. Nueva Zelandan izan dira. Zorionak!



JOSEBA

Pasa den martxoaren 28tik apirilaren 10a bitartean Italiako Bolzano probintziako 12 ikasle Euskadin izango dira. Merkatu batuaren aurrean nazioarteko konpetibitatea kontutan hartuz, Euskadi eta Italiaren

arteko harremanen barruan, Lantegietako Zerbitzuetako teknikariak formatzea da helburua. Aurreikusitako bisiten artean Fagorreko sail desberdinak eta Ikerlan bisitatu dituzte Italiatik etorritako 12 ikasleok.



Musika ikastea ez da umeen gauza bakarrik. Badira hilabete batzuk, Arrasate Musikalek helduentzako musika-hizkuntzaren ikastaroa hasi zuenetik. **Lurdes, Edurne, Enrike eta Mari Asun...** dira ikasleak, Mertxe Madinabeitia irakaslea.




**TTUKUN**

Fotokopiak  
Enkuademazioak  
Koloretan fotokopiak  
Planoen erreprodukzioa  
Offseta

Ferrerias, 23 ARRASATE  
Tfnoa: 79 46 62

**"EDERTU"  
ileapaindegia**



San Andres auzoa  
Tfnoa: 79 04 28

**UGARTE**

**Industri  
hornidurak**

Arrasate pasealekua  
Tfnoa: 79 73 00 / 79 83 96  
Telefax: 793412

## IZEN PROPIOAK

● AEDk burututako Batzar Orokorrean, Zuzendaritza Batzordeko honako partaide berriak hautatu ziren, lehen geratzen direnei gehituko zaizkienak:

**Marilu Ajuria, Nerea**

**Alzola, Jon Arregi,**

**Miren Arregi, Joxe**

**Etxebarria, Elias Herrar-**

**te eta Joxe Mari Mujika.**

● **Iñaki Bordes, Xabier**

**Diez, Lurdes Nafarrate,**

**Andoni Urzelai, Jesus**

**Mari Zenigaonandia eta**

**Iñaki Aranburu eta**

AEDko ordezkaria dira

ARKOko Zuzendaritza

Batzordea osatuko duten

partaide berriak.

● **Iñaki Landa,** gaur

egun Fagorreko Antolakun-

tza eta Sistemetako jefea,

datorren irailetik aurrera

ETEOko zuzendari orokorra

izango da.



Euskararen aldeko Korrika jaia, hainbat herri zeharkatu ondoren, Arrasatera heldu zen atzo. Goiz partean, umeek zein nagusiek hartu zuten parte euskararen aldeko korrika honetan. Goizeko 11ak baino lehenago heldu zen Arrasatera San Prudentzio aldetik, uste baino azkarrago eta beharbada horregatik, bat baino gehiago ustekabeen harrapatu zituen. Hala ere, zortzigarren Korrika hau jendetsua suertatu zen. Ekitaldiak pasa den asteburuan hasi ziren: bertso saioak, Korrikaren alde dirua jasotzea... Gogoratu Korrika iganden bukatuko dela Bilbon, jai eta erreinbidikazio giroan noski, eta bertan jai izugarri burutuko da. Korri sarrera erostera, takarra-dan doazenak ihes egin aurretik.



Altzariak  
Diseinua

M  
ARENAZA

Bizkai, 1 ARETXABALETA  
Tfnoa: 79 08 07

PUB  
HAIZEA



SAMEGO  
GARBIKETAK

Urriburu, 24  
ARRASATE  
Tfnoa: 79 70 39



**LORAMENDI  
KIROLAK**

**HELDU DA UDABERRIA!**

## EZ DITUZU LEIHOAK ALDATU BEHAR


LEIHOETAKO

ZIRRIKITUETATIK:

- HOTZA
- HAIZEA
- HAUTSA
- ZARATA
- POLENA

SARTZEN BAZAIZU...

LEIHOAK ALDATZEA BAINO 10 ALDIZ MERKEGOKA



ALTZAIRU  
INOXIDABLEZKO  
BURLETEAK

*Altzairu inoxidablezko  
burleteak betirako  
dituzue.*

- Edozein leihotarako
- Instalazio azkarra
- 4-6 gradu gehiago,  
etxe barruan.

**OBRARIK GABE**

**glas control**

Ubitarte 7. ELGOIBAR

**ESKATU AURREKONTUAK KONPROMEZURIK GABE**



**74 30 94 - 74 43 54**



# Futbito Txapelketa ZALDIBAREN



## Txapelak gero eta hautagai gutxiago dauzka

Atzera begiratzerik ez dago, joanak joan baina gaizki egindakoa konpontzeko astirik ez. Hortaz konturatzeko, sailkapenei begirada bat ematea besterik ez dago: A multzoan, dagoeneko, lau taldek ez dute zer eginik eta beste batek, hutsik ez egiteaz gain, zerbait egitekotan lehen hiru sailkatuen hanka sartzei itxaron behar diote. B multzoan, beste horrenbeste, gauzak berdin-berdin daude eta. C

multzoan antzera samar daude gauzak, hurrengo fasera pasatzeko bi postuak hiru lehen sailkatuen artean erabakiko dira. Azkenik, D taldean gauzak parekatuago daude eta oraindik, hurrengo faserako pasea jokatzeko aukera lehen bost taldeei ikusten bazaie ere, aukera gehienak lehenengo bientzat. Beraz, txapela jaztekotan hamalau talde oraindik. Datorren astean gutxiago izango dira.

**NUEVO**  
taberna

Bañez Doktoarea, 15  
Tfnoa: 79 99 88  
ARRASATE



DEBA  
**GARAIA**

MONDRAGON BERGARA ELGOIBAR

Arrasaten, Iturrioz, 23 azpia  
Tifnoa: 77 13 02

Eros dezaket pisu bat hirierdian, lasaia, eguzkitsua, ikusbideekin, 3 logelakin eta trastelekua eta guztiz hornitua, baldin badauzkat 1,5 miloi pezeta eta 45.000 pzta / hilero?


**SEGURASKI BAIETZ !**

a taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
ZULOAK	3	3	0	0	23	2	<b>6</b>
ARRASATE KIR.	3	3	0	0	14	3	<b>6</b>
ARGI IBILI	3	3	0	0	17	5	<b>6</b>
NUEVO TABERNA	3	2	0	1	12	11	<b>4</b>
TXOKO TABERNA	3	1	0	2	3	9	<b>2</b>
LOS DIMY	3	0	0	3	6	17	<b>0</b>
ARRASATE KRIST.	3	0	0	3	4	13	<b>0</b>
PEPELUS	3	0	0	3	3	22	<b>0</b>
GUZTIRA	24	12	0	12	82	82	24

b taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
ZIZTI-ZAZTA	3	3	0	0	20	4	<b>6</b>
SUM. UGARTE	3	3	0	0	16	4	<b>6</b>
DIEGO ANTONIO	3	3	0	0	20	6	<b>6</b>
KAIXO LENIZ	3	2	0	1	16	11	<b>4</b>
LORAT. POTROAK	3	1	0	2	8	12	<b>2</b>
NOSKI	3	0	0	3	8	23	<b>0</b>
MONTERREY TAB.	3	0	0	3	5	19	<b>0</b>
PUBLICOOP	3	0	0	3	4	18	<b>0</b>
GUZTIRA	24	12	0	12	97	97	24

c taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
NOTXINGAN FLO.	3	3	0	0	12	6	<b>6</b>
MIKELOS	3	2	1	0	7	3	<b>5</b>
ARLAIDA HAIZEA	3	2	1	0	8	4	<b>5</b>
ZULUS	3	1	1	1	9	7	<b>3</b>
GURE LEKU	3	1	0	2	6	10	<b>2</b>
DANOK LAGUN	3	1	0	2	7	8	<b>2</b>
BIZKORRAK	3	0	1	2	2	9	<b>1</b>
JODO FLORO	3	0	0	3	5	9	<b>0</b>
GUZTIRA	24	10	4	10	56	56	24

d taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
TRIKITI	3	2	1	0	10	4	<b>5</b>
MOTZ	3	2	0	1	8	7	<b>4</b>
URMAY B. K.	3	1	1	1	10	9	<b>3</b>
LEINTZ GARAGAR.	3	1	1	1	10	10	<b>3</b>
KOKKAS	3	1	1	1	8	9	<b>3</b>
LASO ARREGI	3	0	2	1	7	8	<b>2</b>
BETRAYER	3	1	0	2	8	11	<b>2</b>
LOS HEREDIA	3	0	2	1	6	9	<b>2</b>
GUZTIRA	24	8	8	8	67	67	24



**IGOR ALTUNA (Antolatzailea eta *Kriskibalda* taldekoa)**


Igor Altuna, 27 urte, Zaldibarraren jokalaria eta antolatzailea azken 3 urteetan, *Kriskibalda* taldekoa. "Aurten ez gabiltza ondo. Izan ere, kirola eta golfoa ezin daitezke eskutik joan, lehen bai, gazteagoak ginelako". Antolakuntza eta arbitroekiko kolaborazio ezaz kexu da Igor, arbitroak txarrak izatearen errua eta antolatzaileek nahi duten guztia

egitearen salaketa askotan entzun baitu. "Mila pertsonatik hamar dira horiek, gainontzekoak konforme daude, ez dute ezer esaten behintzat. Kritikatu nahi duenak, kalean esa-mesaka ibili beharrean, hemen agertzea berririk ez dauka".

Igorrek dioenez, pozgarriena Zaldibar beteta ikustea da. "Ez niretzat bakarrik, astebururen


batentzako jokatzeko ez badugu, jendeak berehala galdetzen dit zergatia eta. Unerik txarrena? Iazko diruen mobida". Lan gehiegi ematen omen du Zaldibarrek, eta urtero antolakuntza uzteko asmoa adierazten badu ere, azkenean Zaldibarren bukatzen du, "Aurten jende berria eta ona sartu da, antolakuntza uzteko aukera ona izan daiteke" esan arren.

**Miren Garai Estetika Zentrua**



- Gure Espezialitateak:**
- Loditasuna: Goserik pasatu barik.
  - Tratamendu Organoterapikoa
  - Zelulitisa: Liposukzio eta lipoeskultura bidez.
  - Barizeak: Infiltrazioa eta Zirugia
  - Zirugia Estetikoa

Zarugalde 23-2. ezk. 79 96 90



**PINTURA EKOLOGIKOAK**  
Diferentzia: zure osasuna

Zoru arinak. Saipolan. Ceflex. Neurritako felpudoak. Pertsiana biribilkagarriak. Ehunezko hormatakoak. Kortxoak. Moketa losetan.

Ferrerias, 35 ARRASATE Tfnoa: 79 12 87

**BELARRIRA**



Irudi batek mila hitzek baino gehiago balio omen du, baina kasu honetan zail da zer gertatzen den asmatzen. kamarari begiratzen dion jokalaria pozik edo haserre dago? gola sartu izana ospatzen ala arbitroari protestaka?... erantzunen bat ematekotan, seguruen azken aukera horren aldeko apustuak

◆ **Elkarrizketak**

Zaldibarrekin zerikusia duen edonorentzat zabalik dago Arrasate Press. Edozein iritzi eman, kritikatu edo proposamenak egin nahi dituenak, sailkapenen azpian asteroko elkarrizketan izango du aukera. Mormoxetan ibiltzea baino, hobeto esateko dagoena esan eta jendearen aurrera azaltzea.

◆ **Afarien zozketak**

Joan den astean futbito kuadernilorik kaleratu ez zenez, azken bi asteetako afarien irabazleen berri eman behar, nahiz eta lerro hauek irakurtzen ari zaretenarako batzuk afalduta egon. Orain bi asteko afarien irabazleak, Laso Arregi eta Auf dem Koffer taldeak izan ziren; aste honetan, berriz, Noski eta Solano-7 Mares izan dira.

◆ **Partidu onenak**

Asteburuko partidurik interesgarrienak: Zizti-Zazta - Diego Antonio, Notxingan Florest - Mikelos eta Argi Ibili - Arrasate Kirolak.

**EMAITZAK**

**A TALDEA**

Argi Ibili 4 .....	Txoko taberna 2
Zuloak 14 .....	Pepelus 1
Arrasate Kir. 3 .....	Arrasate Krist. 2
Nuevo Tab. 8 .....	Los Dimy 4

**B TALDEA**

Sum. Ind. Ugarte 3 .....	Lorategi Potr. 1
Zizti Zazta 10 .....	Noski 2
Kaixo Leniz 6 .....	Monterrey Tab 2
Diego Antonio 7 .....	Publicoop 0

**C TALDEA**

Mikelos 1 .....	Bizkorak 1
Adelaida Haizea 2 .....	Zulus 2
Notxingan Florest 4 .....	Jodo Floro 3
Danok Lagun 2 .....	Gure Leku 3

**D TALDEA**

Trikiti 2 .....	Los Heredia 2
Leintz Garagar. 4 .....	Betrayer 2
Urmay B. K. 3 .....	Motz 5
Laso Arregi 2 .....	Koxkas 2

*Trikiti* S. L.

**SOINUA • BIDEOA • TB • KOMUNIKAZIOA**

Otalora, 25 ARRASATE Tfnoa: 77 13 20 Faxa: 79 88 56

**ASTEBURU HONETAN**

**Larunbata 3**

**Zaldibar**

- 08.45 Zuloak / Nuevo taberna
- 10.00 Los heredia / Motz
- 11.00 Sum. Ind. Ugarte / Kaixo Leniz
- 12.00 Zizti-Zazta / Diego Antonio
- 13.00 Bizkorrak / Jodo Floro
- 14.00 Pepelus / Los Dimy
- 15.00 Leintz Garagardotegia / Laso Arregi
- 16.00 Lorategi Potroak / Monterrey taberna
- 17.00 Noski / Publicoop
- 18.00 Notxingan Florest / Mikelos
- 19.00 Txoko taberna / Arrasate Krist.

**Igandea 4**

**Zaldibar**

- 08.45 Trikiti / Urmai B. K.
- 10.00 Adelaida / Danok Lagun
- 11.00 Zulus / Gure Leku
- 12.00 Argi Ibili / Arrasate Kirolak
- 13.00 Detrayer / Koxkas



**NON DAGO BALOIA?**



Ikus dezakezuen, oraingoan argazkiak garbi asko erakusten du baloia non dagoen. Izan ere, **Non dago baloia?** lehiaketari amaiera iritsi zaio. Dena dela, azken irabazlearen berri eman beharra dago, **Iñaki Arriola**. Iñakik ez zituen fototruko guztiak asmatu, baina bat behintzat bai, eta hori nahikoa zen zozketan sartzeko, bera, astero-astero txartela bidaltzen zuten horietakoa baita. Beraz, zorionak Iñakiri eta animo beste guztiei, oraindik lehiaketa gehiago antolatuko dira eta.



*Tripipublic*

Kanpatorpea, 2

Tfnoa: 79 31 33 Faxa: 79 88 56 ARRASATE.

- Publizitate kanpainak •
- Diseinu grafikoa •
- Artikulu publizitarioa •
- Zuzeneko publizitatea •
- Bideo produkzioa •

● *Melissa Moya*

# Kooperatibei buruzko tesia garatzen

**EE BBko Notre Dame unibertsitatean ekonomia ikasi ondoren, Melissa orain dela sei hilabete etorri zen Arrasatera, kooperatibei buruzko tesia egitera.**

— Zergatik aukeratu zenuen Arrasate tesia egiteko?

— Beno, bi arrazoi desberdin daude. Alde batetik, EE BBtan ekonomia ikasten hasi nintzenetik oso interesatuta egon naiz kooperatibetan. Ekonomiaren barruan, arlo desberdin asko iker daitezke, eta beste ikasle eta nire lagun asko bezala, nik ere kooperatiben modelua ikeritzea aukeratu nuen tesia egiteko. Hala ere, gehienek Hego Amerikako kooperatiben esperientzia ezagutu nahi izan dute. Nik, aldiz, bide desberdina jarraitzea erabaki nuen hasieratik. Horregatik, beka bat eskatu nuen eta EE BBetako eta Espainiako gobernuen artean dagoen harreman kulturala medio, sei hilabeterako beka lortu nuen. Bigarren arrazoa, bestalde, nire senargaiak Frantziako ikastetxe batean ematen dituela klaseak eta beno, Arrasate ez dagoela hain urruti.

— Zer izan da Arrasate eta inguruan gehien eta gutxien gustatu zaizuna?

— Lehendabizi esan behar da nire herriarekin desberdintasun handiak dituela eskualde honek. Hasteko, hemengo inguruko herriak mendiz inguratuta daude eta, niretzat oso kuriosoa da jendeak, horiek ezagutzeko duen interesa; asteburuetan jende asko joaten da mendira. Bestalde, Deba Garaia oso industrialia da eta horren ondorioz, Arrasate eta inguruko herrietan dagoen kutsaduraren portzentai oso handia da; arnasa hartzerakoan ere igarri egiten da, errekek kolore guztietakoak dira... Horregatik, argi eta garbi dago kontraesan bat dagoela, nabaria da, industrialki oso aurreratuta dagoen herrialdea ingurugiroan gero eta atzerago dago. Bestalde, asko gustatzen zaizkit oraindik gordetzen diren ohitura zaharrak, herri batentzat funtsezkoak dira. Esate baterako, ideologikoki euskaldunok oso ondo dakizue nahi duzuen, defendatzen duzuen eta seguruenik historiak ere eragin handia izan du arlo honetan, asko lagundu dizute hori lortzen eta kontserbatzen.



— Zerk bereizten ditu Arrasateko Kooperatibak?

— Beno, etorri baino lehen, nik gauza asko irakurri nituen hemengo kooperatibei buruz eta informazio piska bat ere banuen baina, egia esan, uste nuena erabat desberdina ikusten da bertatik. Hau da, jende asko etortzen da hona, kooperatibetan zenbat jende dabilen lanean ikustera eta historikoki izan duen prozesua ikertzera. Egia esa, hau sozialki oso inportantea da, baina ekonomista bezala, gaur egun sortu nahi den korporazioa da benetan interesatzen zaidana partikularki, egon den eta egongo den kooperatiba desberdinen arteko harremana, azken finean.

— Aldaketarik izan da Kooperatiben barruan?

— Merkatu batuaren aurrean sartzen ari diren aldaketek eragin asko dute eta izango dute. Lehen, produkzioa hobetzea zen helburua baina beti ere, pertsonak kontutan hartuta. Gaur egun, aurrera irtetea da inportanteena, superbitzea eta konpotentzia era berean. Oso gauza desberdinak hartzen dira kontutan, beraz. Aldaketa hori da beharbada momentu honetan neuri ere gehien interesatzen zaidana.

— Pertsona bezala nolakoak gara euskaldunak?

— Ni Aretxabaletan bizi naiz eta, jende aldetik nahiko harrera ona izan dut. Bestalde, asko harritzen nau kuadrilari ematen zaion indarrak, lagun talde batean dauden harreman horiek finkatu egiten dituzue, nolabait. Nire herrian, bestalde, hemen baino lehenago independizatzen gara gazteok, lehenago irretendugu gurasoen etxetik, 19-20 urte bete orduko, norbera bere etxean bizi da. Baina ez, ez dut izan arazo gehiegi hemengoekin erlazionatzeko.

● **“Merkatu Batuan sartzearekin batera Kooperatibetan gertatu diren aldaketak interesatzen zaizkit tesia egiteko”**


# Asteburua elurretan Besaiderekin

Beñardo Kortabarria

**Kalean ibiltzen ohituta daudenek, nekez ikusten duten elurra, oso gutxitan egiten du eta. Hortaz, elur-kirolez gozatu nahi dutenei, elurra dagoen tokietara joatea beste erremediorik ez zaie geratzen. Besaidekoek, elurraren falta ikusita, azken 10-11 urteotan negualdia aprobetxatzen dute autobusa hartu eta asteburuetan elurraren bila joateko.**

## ESKI ALPINOA

Urtarrilean hasita, Besaidekoak asteburu joaten dira elurretara, Formigalera normalean, Karmelo Bergaretxe Besaideko eski saileko arduradunetarik baten ustez, baldintza egokienak eskaintzen dituen tokia baita. "Larunbat goizetan irteten gara, bostak aldera eta autobusa beteta normalean. Aurrez, hotelaren tratua eginda izaten dugu eta jakiten dute hemendik zenbat joango garen. Beno, esan bezala autobusa goizeko 5etan irteten da hemendik, eta Formigalera irteteko, ordu-erdiko atsedendaldia bategaz, bederatzia inguruan irteten gara normalean".



Asteburuko ikastaroa nahikoa da eskietan ibiltzen asmatzeko.

Ahalik eta denbora gehien aprobetxatu nahi izaten denez, Formigalera iritsita, lehen aldiz joaten direnak izan ezik, jende gehiena berehala joaten da eskiatzera, gauzak autobusean utzita. "Lehen aldiz datozenei lagundu egin behar zaie, materiala alokat-

zen lagundu eta ikastaroa hasi arte eurekin ibili, bestela galduta bezala ibiliko lirateke. Ikastaroa, hoteleko egonaldia eta erremonteak bezala, prezioan barne sartzen da; eta esan daiteke, asteburu bateko ikastaroaz eskiatzen ikasi daitekeela, erremonteak hartze-

ko bezala behintzat. Ikastaroak, normalean, lau orduko iraupena izaten du, larunbatean bi eta igandean beste bi, lau ordu eta ausardia apur bat nahikoa dira eskiatzen ikasteko".

## PARRANDARIK EZ

Besaideko eski asteburuetara joan ez denak besterik pentsa badezake ere, jende gehienak egonaldia eskiatzeko aprobetxatzen du, ez beste ezertarako. "Jendeak bazkaltzeko denborarik ere ez du hartzen, ogitarteko bategaz pasada egin eta berriz eskiatzera, arratsalde erdirarte. Arratsaldean, 5ak - 5.30ak aldera jendea hotelera joaten da normalean, dutxatu eta gehienak afalordurarte lotara, eskiatzera eta lo-orduen faltak pertsona zeharo jota uzten du eta. Batzuk joaten dira txikiteora edo erosketaren bat egitera, baina oso jende gutxi. Afaria zortzirak aldea izaten da eta afalostearen apur bat tertulixan egon ondoren, berriz ohera. Beti dago norbait, izatekotan gazte kuadrilaren bat izaten da, parrandan ibiltzen dena, baina hauek ere goizean goiz jaikitzen dira eskiatzera joateko, zeren parrandan ibiltzekotan jendea hemen geratuko litzateke, haraino joan barik".

Eski-alpinoa egiten dute Formigalera, normalean komikietan apurtutako hanka edo besoz ilustratzen dena, Karmelo Bergaretxeren ustez iru-

d i  
faltsua.  
"Badira  
hamarren bat  
urte asteburue-  
tako eski-egonaldi



Normalean Besaidekoen autobusa beteta joaten da eta jende gehienak eskiatu baino ez du beste ezer egiten.

hauek antolatzen ditugula eta gehienetan istripu barik bukatu izan dugu denboraldia. Noizbait zerbait gertatu izan da, baina aurten eta ia ez esate batera, ez da inolako istripurik gertatu, bihurritu bat asko jota eta hori ere inprudentziak eraginda. Nire ustez, eski-alpinoa ezin da kirol arriskutsutzat hartu”.

#### MENDI-ESKIA

Beharbada eski-alpinoak ez du aparteko arriskurik izango, baina Besaide Mendizale Elkarteak burutzen dituen elur eta izotzetako beste modaliteren batek, neurri batean, izan dezake arriskurik, mendi-  
e s -

kiak esate baterako. “Arriskutsua izan daiteke, elur-jauzien ondo-

rioz batez ere -zioen Besaideko lehendakariak, Andoni Villarrek, “bestela, kontuz ibili ezkerro eta apur bat mendia ezagututa, beste edozein kirolen antzerakoa da. Mendi-Eski saila aurten sortu dugu Besaide Elkartearen barruan, bi arrazoiengaitik batez ere, eski-alpinoan mugitzen den jende piloaren ondorioz eta mendian ibiltzen den jende mordoaren eraginez. Eski-alpinoan ibiltzen den jende asko, aspertuta bezala zegoen eta mendi-eskiak beste aukera bat eskaini dio, gauza desberdin bat egiteko; zentzu berean, mendian ibiltzen direnei eski batzuk jaztea nobedadea izan daiteke. Labur esanda, mendi-eskia mendian ibiltzea izango litzateke, ahal denean eskien gainean eta ezi denean oinez. Beraz, argi dago mendi-eskian bi motatako jendeak elkar egin duela topo, mendia ezagutu barik oso eskiazaile onak direnak eta mendia oso ondo ezagutzen dutenak, baina eskien gainean maila handiegia ez dutenak... eta hortik ere etorri daiteke nolabaiteko arriskua. Hori dela eta, kirol honi indarra

eman eta gero jendea gehiago prestatuz joan dadin, batez ere segurtasun aldetik, aurten mendi-eskia egiteko bost irteera antolatu ditugu”.

#### BESTE AUKERA BATZUK

Elurraz eta mendiaz hitzegiterakoan, badirudi derri gorrez hitz egin behar dela eskiari buruz, baina ez dauka zertan horrela izanik, elurretan eta izotzetan eski barik ere egin daitezke gauzak eta, horren lekuko Besaidekoek duela gutxi Panticosara egin zuten irteera. “Zubi osorako joan ginen eta irtenaldiaren helburuetariko bat, jendeari izotzetan eta elurretan nola ibili erakustea izan zen, negu teknikak: pioleta nola erabili, kranpoiekin nola ibili behar den, soka zertarako erabili behar den izotz gainean ibiltzerakoan... azkenean ekintza berezi bat egitea da, leku ezberdinak ezagutu, mendi berriak... gazteentzako ikastaro txiki bat egitea”.

Elurra, izotza, eskia, mendia... Besaidekoek negu partean astebururoko aukera, probatzeko besterik ez bada ere, merezi duena.

# J

**ende gehiena  
eskiatzera  
joaten da,  
parranda egiteko  
ez lirateke  
Formigaleraino  
joango eta”**

# Gimnasia erritmikoa: kirola eta ikuskizuna

**Gimnasia** Erritmikoa gorputz lirainen kirola da, flexibilitatea eta teknika nagusi diren horietakoa. Telebistaz edo kiroldegiko jarlekuetatik begiratuta ez dirudi oso gogorra, baina bertan dabiltzanek adierazten dutenez, sufrimendu handikoa da.

Arrasateko Gimnasia Erritmika taldea orain hamar urte sortu zen eta bertan 4 urtetik 16 urtera bitarteko 60 neskatila dabilza, hiru kategoriatan banatuta: haurrak, erdikoak eta nagusiak. Arantzazu Zubiaren aginduetara entrenatzen dute guztiak, astean bi aldiz txikienek eta hiru aldiz besteek. "Haurrek astearte eta ostegunetan entrena zen dute, guztira pare bat ordu; handiagoek, berriz, astelehen, astearte eta ostiraletan, ordu t'erdi bat inguru entrenamendu saio bakoitzeko". Kirol bezala, ematen duena baino gogorragoa dela dio Arantzazuk, txapelketetan parte hartzeko elementu edo tresnekin behin eta berriaz behar baitago, teknikaren lanketa berezia eskatzen da beraz. Lanketa berezi hori, teknikak ezezik, gorputzak ere eskatzen du, flexibilitate maila altua lortzeko. "Jende askok behartu egiten du gorputza, baina niri entrenamenduetan ez zait gustatzen jendea behartzea,



Txiki-txikitatik hasten dira gimnasia erritmikoa.

neskek asko sufritzen baitute; berezko flexibilitatea dutenei irtetzen bazaie bale! besteek hobe dute poliki ibiltzea. Goi-mailetan astakeria handiak egiten dira, janari-kontuetan batez ere, kontuan hartu barik ume txikiekin dabilzala. Hemen kirolaren beste kontzeptu bat dugu".

Entrenamenduetan aritzea baino gehiago eskatzen dute sarritan umeek eta joan den asteburuan, Arrasateko taldeko bi neskatilak, alebin mailakoak, txapelketetako estreinaldia egin zuten.

Larunbateko saioa Gi-

puzkoako txapelketarako sailkatzeko zen eta parte hartu zuten 18 atleten artean, Arrasateko biek lortu zuten sailkatzea, Izaskun Iglesias 3. postuaz eta Ainara Otamendi 9. arekin. "Entrenamenduetan baino motelago ibili ziren biak, baina normala da, nerbioen kontuak. Gipuzkoako Txapelketan lan ona egingo dute, seguru. Etorkizunari begira, Izaskun Iglesias kontuan hartzeko izena da, datorren urtean seguruaren zentru berezi batetara joateko aukera izango du eta".

## LABURRAK

### Dorletako txirrindulariek garaipenik ez

Dorletako-Ama Txirrindulari Eskolako txirrindulariek ezin izan zuten garaipenik lortu joan den asteburuan burututako lasterketan. Alebin eta infantil mailakoan aurtengo lehen proba Oñatin burutu zen, Mikel Sebastian izan zen Dorletako onena, zortzigarren postuan. Lehen urteko kadeteak Beasainen izan zuten lasterketa, 92 txirrindulariren artean Zuhaitz Herrero 5.a izan zen eta Mikel Roldan 9.a. Bigarren mailako kadeteak Seguraino joan ziren, Dorletako taldeak hiru lagun sartu zituen 20 lehenengoan artean. Azkenik, jubenilen zita, Antzuolan Uzarragako igoeran; Dorletakoak nahiko ondo, Garitano 9., Urbina 11., Roldán 12. eta Aitor Llodio 13.

### Atzeratutako partidua

Aste Santua bertan dagoela eta, Arrasate Saskibaloitaldeko gizonezkoek, ondorengo bi asteetan jai hartuko dute. Atsedendia ez zaie gaizki etorriko indarrak berreskuratu eta lesioak sendatzeko. Hurrengo partidua, beraz, hilaren 17an.

Mutilek jai, baina neskek ez. Izan ere, elurraren ondorioz, Donosti taldearen aurkako partidua atzeratu egin zen eta igande honetan jokatu dute. Sailkapenari begira, garaipena oso inportantea da.

BLUSAK  
OSAGARRIAK  
POLTSAK

**XATHO**

ANGELA UNZUETA

Novecento eskusiban  
Paola Frasconi, Liseta Paoletti, Dinastie

Ortiz de Zarate, 14 GASTEIZ

**ESLU**

ileapaindegia

Tfnoa: 79 37 88  
ARRASATE



**PENALTIAK**

● **Eskubaloian kadete mailako jokalariei ordu-aldaketak faena ederra egin zien. Igandean, goizean goiz jokolari guztiek autobusaren zain makina bat denbora pasa zuten. Ordu-aldaketaren ondorioz, autobuseko txoferra despistatu egin zen eta ordubete berandua go agertu. Andoaindarrek, zain egoten aspertu eta partidua suspendituztat eman zuten.**




**Emakumezkoen Mondra sailkapeneko lehen postuan**

Justu samar, baina Mondrako emakumezko taldeak garaipena lortu zuen joan den astean, Urretxu taldearean aurkako partiduan, emaitza 2 eta lekoa. Garaipen berri honi esker, arrasatearrek, Gipuzkoa mailan jokatzeko ari den kopa txapelketan, orain arte jokatu diren bi partiduetan garaipena lortu ondoren, sailkapeneko lehen postuari eusten diote. Asteburu honetan, emakumezko taldeak kanpoan jokatuko du, Ostadar taldearen aurka. Lan handia egin beharko dute bi puntuak eskuratzeko.

● **Arbitroak erabaki zuen Arrasate eta Algortaren arteko rugby partiduko emaitza. Partidua bukatu zenean, arrasatearrek berdindu egin zutela uste zuten; algortakoek, aldiz, galdu egin zutela, baina arbitroak, guztion harridurarako, gauzei buelta eman eta aktan partidua Algortakoek irabazi zutela jarri zuen.**

**Ze irizten diozu J. M. Balzategiren dimisioari?**

Ondo iruditzen zait, berak 17 urte daramatza saskibaloian munduan lan eginez eta dimisioa aurkezteko arrazoi osoa du. Ondo merezitako atsedena, zuzendaritzakoek ere, ez diogu behar beste lagundu eta.



**JON ANDER JULDAIN, saskibaloian taldeko zuzendaritzakoa**

**EMAITZAK**

**Saskibaloia**

Seniorrak: Arrasate 84 - Juven 80  
 Juniorkak: Arrasate 68 - Erka Renteria 81  
 Jubenilak: Gizonezkoak: Zahor 52 - Arrasate A 113, Arrasate B 62 - Andraitz 105  
 Emakumezkoak: Arrasate 49 - Juven B 65  
 Kadeteak: Gizonezkoak: Arrasate B 68 - Aldapeta 73, Euskalduna 64 - Arrasate C 53  
 Emakumezkoak: Arrasate A 48 - Laskorain 29, Zahor 48 - Arrasate B 44

**Hurrengo partiduak**

Seniorrak: Emakumezkoak, Arrasate - C. B. Donosti, igandean Musakolan 12etan.  
 Jubenilak: Gizonezkoak: Arrasate A - Miner Ardoak, larunbatean Musakolan 4etan.  
 Bergara - Arrasate B, igandean 12.15etan Bergaran.  
 Emakumezkoak: Ondartza - Arrasate, igandean Hondarribian 12etan.  
 Kadeteak: Gizonezkoak: Arrasate A - Lizaso, larunbatean Musakolan 12etan.  
 Andraitz - Arrasate B, larunbatean Legazpian 12etan.  
 Emakumezkoak: Arrasate A - Zahor, igandean San Viatorren 12etan.  
 Arrasate B - Zahor B, larunbatean San Viatorren 4etan.

**Eskubaloia**

Seniorrak: Arrasate 24 - Urola 20  
 Juniorkak: Pulpo 18 - Arrasate 22  
 Jubenilak: Urola 26 - Arrasate 16  
 Kadeteak: Leizaran 1 - Arrasate 0

**Hurrengo partiduak**

Seniorrak: Arrasate - Akondia Eibar, larunbatean Iturripen 6.15etan.  
 Juniorkak: Arrasate - Aloña Mendi, larunbatean Iturripen 4.45etan.  
 Jubenilak: Ordizia - Arrasate, igandean 12etan.  
 Kadeteak: Urola - Arrasate, larunbatean 4etan.

**Rugbya**

Seniorrak: Arrasate 27 - Algorta 29  
 Kadeteak: Arrasate 52 - Eibar 0  
 Emakumezkoak: Gaztedi 36 - Arrasate 0; Zaragoza 48 - Arrasate 0.

**Futbola**

3. maila: Aurrera 0 - Mondra 0  
 Emakumezkoak: Mondra 2 - Urretxu 1  
 Ohorezko maila: Santo Tomas Lizeoa 1 - Mondra 2  
 Jubenilak, bigarren maila: Zumaiako 1 - Arrasate 8  
 Kadeteak: Arrasate 4 - Aloña 1  
 Haurrak: Añorga 7 - Arrasate 2  
 Arrasate 4 - UDA 0

**Hurrengo partiduak**

3. maila: Mondra - Arenas, igandean 5etan Atxabalpen.  
 Ohorezko maila: Mondra - Urola, larunbatean 5etan Atxabalpen.  
 Jubenilak, lehen maila: La Salle - San Andres, larunbatean 4.30etan.  
 Jubenilak, bigarren maila: Arrasate - Alev. Vasco, igandean Atxabalpen 11.30etan.  
 Kadeteak, lehen maila: Aurrera - Arrasate, igandean 4.30etan.  
 Kadeteak, bigarren maila: Almen - Arrasate, igandean 11etan.  
 Haurrak: Arrasate - Sporting, larunbatean 11etan Atxabalpen.  
 Arrasate - Almen, igandean 10etan Atxabalpen.

**Ostirala 9, arratsaldeko 5etan Atxabalpen Athletic - Gipuzkoa.**



- Garbitasun orokorrak eta mantenimentua: etxebizitzak, atariak, dendak, bulegoak, kristalak, etab.
- Edozein zoru motari dizdira ateratzea.

San Juan, 14 etxabea Tfnoa: 77 06 43 ESKORIATZA

**Zarraoa**

**ESTETIKA ZENTRUA**  
 Lurrundegia, opariak, jostailuak

Kanpantorpea, 4 Tfnoa: 79 12 19 ARRASATE

# Janariak etxean izoztea (IV)

**J**anariak etxean izozteari buruz azken aleotan ematen ari garen aholkuak kontutan izanda, horretarako egin behar diren lan ezberdinak aztertu ditugu: prestakuntza, ontziratzea, etiketa eta azkenik, kontserbazioa. Hemen sortzen dira askotan arazoak.

Izoztutako janariak ondo almazenatuta edukitzeak produktuak baldintza onetan egotea garantizatu egiten du askotan, eta horretarako, honako arau hauek errespetatzea aholkatuko nuke:

a) Janariak izozteko, izozgailua hotzik handiena-rekin, (-30°Ctan) jarri behar da, janariak bertan sartu baino 6 bat ordu lehenago eta gero 24 orduz gutxienez horrela eduki. 24 orduak pasa ondoren, betiko tenperaturan jarri behar da aparailua, hau da, -18°Ctan.



b) Ez da ona izozgailua-ren kapazitate osoaren %10 baino kantitate handiagorik aldiko izoztea.

c) Atea ahalik eta gutxien zabaltzea komeni da, hotzik ez galtzeko.

d) Izoztu beharreko

produktuak kojeladorera sartzerakoan, kontutan izan produktuak hormen kontra egotea komeni dela, eta paketearen ahalik eta azalerarik handiena horrekin kontaktuan egotea.

Ikusi dugu izoztutako

janariak zein abaintaila duten. Emandako aholku apur hauek arretaz jarraituz gero, ziurtatuta izango duzu arrakasta.

**M<sup>a</sup> TERESA ALONSO**  
**EROSKIKO ELIKADURA**  
**MONITOREA**

## J. ROBERTO GUERRA Drak.

**ORDUTEGI ALDAKETAREN BERRI**  
ematen dizu

**Apirilaren 19tik aurrera,**  
**arratsaldeko 4.15etatik 7.15etara izango da,**  
**astelehenetik ostiralera**

**Tfnoa: 79 80 80**

Otalora Lizentziatua, 29- 2. ezk. ARRASATE

**HAURTOKO**

Arrasate Pasealekua 4,  
Tfnoa: 79 14 90  
ARRASATE

## EPELDE

*argazki denda*

Iturriotz, 24  
ARRASATE  
TFNOA: 79 19 71



## IBABE GARAJEA

**MEKANIKA, TXAPA ETAPINTURA**

Gesalibar auzoa, z/g. Tfnoa: 79 99 61 ARRASATE

**beatriz**

oinetakoak eta  
poltsak

Erdiko kale, 11  
Tfnoa: 79 14 33  
ARRASATE

**ARRASATE  
PRESS**

**HARPIDETZAK**

**77 05 65**



ONDO JAZTEA ETA GAINERA EROSO JOATEA GUSTATZEN BAZAIZU...

*Elisabeth*

ZUGANDIK HURBIL ETA HARRITUKO ZAITUEN PREZIOEKIN  
SAN ANDRESEN, AUTOBUS GELTOKI ONDOAN

Araba Etorbidea, 18. Tñoa: 77 14 86 ARRASATE



**KIROL BAKOITZERAKO ERANTZUN BAT**

**ARRASATE**  
**KIROLAK**

Kontzeziño kalea, 8 Tfnoa: 79 46 12  
ARRASATE



Hiltzea plazan.

# Sutearen amaiera

**Erasoaldiak** hamar egunez iraun zuen, baina oinaztarren indar gehiagoren etorreraren beldur zirela eta, San Kristobalگو ermitan bildu ziren siritatzaileak, eta herriari su ematea erabaki zuten. Harresiz inguratutako herrixkari lau aldetatik eman zioten su, eta lasto piloa bezain agudo erre zen Mondragoe. Etxe bi baino ez ei ziren zutik geratu.

Butron ihes egiten saiatu zen; Aramaio aldean ganboatarrak zeudenez, Maalako Arrabaletik irteten ahalagindu ziren; baina han ere enboscada zegoen prest eta bertan erori ziren. Ehundaka hildako izan zen, horien artean Gomez Gonzalez de

Butron bera eta bere seme Juanikote, Presebel, Sancho Lopez de Ugarte eta kanpotik lagutzera etorritako kazike ugari. Mondragoen sartu eta suak jan ez zuen apurraren jabe egin ziren Irabazleak.

Juan II. erregeak laster izan zuen gertatukoaren berri eta ordezkariak bidali zituen justizia egin zezaten. Tolosan egin zen epaiketa, eta Bañezen familiako zaldunik handienetako zazpiti zigor gogorra ezarri zitzaien urte horretako bertako abenduaren 18an: hankak eta besoak lotuta, bizirik erreko zituzten. Pedro Velez de Guevarak eta beste 300 lagunek, berriz, "heriotza naturala, uretan sar-

tuta, lepoan pisu bana jarrita" izan zuten sententzia; hidalgo ez zirenei urkatu rik hiltzeko zigorra ezarri zitzaian, zigor berbera gorpuak zintzilik zeuden lekutik jeisten zizutenei, eta herriari su eman zioten lau lagunak, berriz, bizirik erreko zituzten eskuak eta hankak loturik su motelean.

Baina Tolosako epaiketa horretara bi mondragoetar baino ez ziren aurkeztu eta gainerakoak errebeldian epaitu zituzten. Ezarritako zigorrak, moroen aurkako gerran hiru urte egitearen eta Mondragoeko kaltetuei ordaina ematearen truke barkatzea lortu zuten ganboatarrek.

## SUTONDOAN

### ANJEL ABELETXE ETA BITTORIANATXO SORGINA (VI) (Gertatua)

**E**uria zerbait atertu zuenean, etxerakoari eman zion, eta bai atso petralak ere beste bidetik, nahi eta nahi ez berarekin gurutzatzeko moduan. Busti-busti eginda, zerbait baretu zenean, zirri-borroaren azpian aldeko sorginaren burua egon zitekeela pentsatzen zegoela, esan eta izan, beheko bide zabalera iritsi zirenean, bata behe-runtz eta bestea goruntz gurutzatu zirenean, bultu ilun batetik irten zen "gabon", eztsuak egiztatu zion berbera zela.

Egon zen gure mutila pixka bat lehenago aurpegia estaltzen zion tximetatik heldu eta lau metro barruan zeukan ibaian murgil batzuk eraginez aldi on baterako bartzak astintzeko pentsatzen ere, baina horretarako berriz jaio behar zuen, den txarrean ere, berak inori kalte egitea baino berari egin diezaioten ere nahiago zuen eta.

ARREGI TAR TIBURTZIO

**"PAL"**  
burdindegia,  
brikolage  
eta tresneria  
Uribarri etorbidea 3,  
Tfnoa: 79 31 99

Erdiko kale. 79 19 37  
**ILEA**  
Perreras. 79 87 62

**HIES EKIMENA**  
Astelehen, astearte  
eta ostiral  
5etatik 8etara.  
Tfnoa: 79 26 99

**IBARRA**  
Garajea S.L.  
 **EBRO NISSAN**  
Garajea  
Automobil-konponketa  
Garabi zerbitzua



*B*

adator Aste Santua, eta garai bateko Aste Santuak Arrasatek izaten zuen garrantziaren eta zentzu erlijioso markatuaren lekuko da aste honetako fotozaharrera dakargun erretratua.

Eguakotx Santuz izaten zen prozesioan ateratakoea da, eta bost mutiko horiek aingeru jantzita joan ziren. Ezkerretik hasitan, **Juan Luis Beitia**, gaur egun Gasteizen bizidena, bere alboan **Jose Anjel Barrutiabengoa**, eskuetan erratilu baten Kristoren koroia daramala. Bere alboan,

**Jabier Egiara**, INRI jartzen zuen letrenoarekin, eta hiru-garren aingerua **Jesus Oianguren**, iltzak eskuetan dituela. Aingeruarena egiten zuten hiru mutikoak lehengusiak dira. Eskuman dagoena **Jose Antonio Balardi**. Alboetako biak, nagusiagoak izanik, bes-teen laguntzaile joan ziren, nondik nora ibili behar zuten eta adierazten.

Taldetxo honen atzetik, eta jendez inguratuta eta kandela handien argitan, Kristoaren urna eramaten zuten andan, eta lan hori egiteko, borroka handiak izaten ei zi-

ren sozietateen artean eta beste talde batzuen artean. Atzetik Ama Doloretakoea etortzen zen, eta prozesioaren buruan San Juanen irudia.

Kaleetan zehar egiten zuten bidea: Parrokiatik irten eta erdiko kaletik behera Maalara, Roneo aurrekaldetik San Frantziskora, gero Kontzesiñora eta handik osterara Parrokiara. Korua joaten zen kantuan, eta martxa funebrea jotzen ei zuen Banda Municipalak. Ekintza honen aurretik sermoiak izaten ziren, Parrokian erdaraz eta San Frantziskon euskaraz.



Mondeo

**MUGARRI**

*Mondeo*



**Barruko indardun edertasuna**

**Injinerutza aurreratua eta aitzindaririk gabeko maila teknikoa.**

**ZURE IRAGARKIAK DEBALDE HEMEN! Idatz ezazu Azoka kaleko, 1era edo dei egin 77 05 65 ☎**

**Etxebizitzak**

- **Etxea salgai Aretxabaletan**, berrituta eta jantzita. 71 51 04 tfnora dei egin.
- **Donostian gela bat edo pisua behar da**. Tfnoa: 79 47 09.
- **Bi oheko gela eskaintzen da**. Tfnoa: 79 07 73.
- **Pisua edo logela behar da Arrasaten**. Premia dut. Tfnoa: 88 90 59.
- **Donostian hiru hilebetetarako pisu konpartitu bat behar dut**. Tfnoa: 71 41 21.

- **Leintz Akademian alemanezko, ingelesezko eta italiano zoko klase partikularrak** ematen dira. Tfnoa: 79 81 30 eta 79 51 09.
- **Espereintziadun neskek etxeko lanak egin eta umeak zainduko** lituzke. Tfnoa: (945) 44 53 31. Aramaio.
- **Ingelesesko klase partikularrak** ematen dira. Mailak: ertaina eta altua. Tfnoa: 79 20 64.
- **Andra bat prest atarte, bulego eta lokal komertzialak garbiketako**. Tfnoa: 77 09 56. Maribi.
- **REM eta OHOk klase partikularrak** emango nituzke. Tfnoa: 79 48 09. Itziar.

- **Nintendo kotsola, eurokonektorea behar duena, salgai** 6.000 PTAtan. Hainbat joku 3.000-5.000 PTA artean. Tfnoa: 71 40 19. Igor.
- **Seat Panda, SS-0408-S, egoera onean salgai**. Dei egin denda orduetan 79 86 75 tfnora.

**Denetarik**

- **Leioara egunero joaten naiz kotxez**. Zuk ere bidaia bera egiten baduzu, elkarrekin joan gaitzake; kotxea baduzu hobeto. Dei egin asteburu eguerdian 79 50 20. Imanol.
- **Larunbatean eguerdiko 1.30 inguruan urrezko pultsera bat galdu nuen Olarte kalean**. Aurkitu duenak dei egin dezala 79 49 76 tfnora. Saritu egingo da.
- **Aste Santuan Parisera joateko pertsona behar dut**. Joan nahi baduzu, dei egin 79 89 31 tfnora.
- **Lau hilebeteko txakur kume polit eta alai ematen da**. Beltza da. Tfnoa: 79 90 87.
- **Hies-Ekimenak sexualitateari buruzko argazkiak ateratzeko modeloak behar ditu**. Emakumezkoak nahiz gizonezkoak. Ez zaitez beldurtu eta etorri gugana. Jende askoren laguntza behar dugul Tfnoa: 79 26 99.
- **Asteburuetan, kotxez, Madril-Arrasate eta Arrasate-Madril bidaia egiten dutenekin kontaktatu nahi dut**. Dei egin 79 53 12 tfnora. Asier.
- **Egunero goizeko 8etarako heltzeko kotxea behar dut Donostian**. Gastuak erdibana. Tfnoa: 71 41 21.

**Salerosketak**

- **Moto Guzzi California Custom salgai**. 450.000 PTA. Tfnoa: 79 87 62. Joxe.
- **Nissan Vanette SS-AG furgoneta salgai**. Tfnoa: 51 51 41.
- **Mahai borobila, aulkiak, aparadorea eta alfonbra batzuk salgai**. Dei egin 8etatik aurrera 79 52 96.
- **Bi urteko Adria markako karabana salgai**. 5 plaza, berogailua eta oso prezio interesgarria. Tfnoa: 79 84 55.
- **Opel Corsa GT 1.300, SS-Z zuri kolorekoa salgai**. Tfnoa: 79 42 78.
- **Nikon F-801 argazki makina salgai**. Oso ondo zaindua eta oso prezio onean. Tfnoa: 77 12 28. Jabier.

**Lana**

- **Frantzeseko klase partikularrak** ematen dira. Tfnoa: 79 45 51. Eva.
- **Ingeleseko ikastaro trinkoak** ematen dira. Hasiera, apirilaren 19an. Tfnoa: 79 24 59.
- **Etxean egiteko lan serioa eskaintzen da** 18 urte baino nagusiagoentzat. Erantzuna eta informazioa jasoteko sobre bat sigilu eta guzti P. I. de Barrutia, 1-1. Ezk. (Aramaio) zuzenbidera.
- **Lanak ordenadorez pasatzen dira**. 150 PTA orriko. Tfnoa: 79 13 26. Maite.

**Aste Gazte**

**Bekak**

• Udako oporretan hizkuntz ikastaroak atzerrian burutzeko bekak: a) BBB3, UBI, LH II eta IEE 2. zikloko ikasleei zuzenduak. Baldintzak: 92-93 ikasturtean bekariora izatea. Epea: apirilak 23. b) 18-25 urte bitartekoentzat. Baldintza: hizkuntzaren ezaguera nahikoa. Epea: apirilak 7.

**Sexualitate tailerrak**

• Gazte taldeetako mo-

nitoreei zuzendutako 2 tailer antolatu dira: a) ekainak 4,5,6 intentsiboa, Azatzan b) asteazkenetan, 6etatik 9etara, maiatzaren 26tik aurrera. Izenemateak Gazte Bulegoan edo HIES Ekimenaren lokalean.

**Ikastaroak:**

• Argazkigintza ikastaroa, hastapen maila. Maiatzaren 3tik ekainaren 3ra, astelehen eta asteazkenetan. 7etatik 9etara. Matrikula: 1.000 PTA. Plaza mugatuak.

**Lehiaketak:**

- “Ez ikutu nire laguna” argazki lehiaketa. Gaia: arrazakeria. Zuribeltz nahiz koloretan. Epea: apirilak 19.
- Gazteen IV. komiki-lehiaketa. 14-18 urte. Zuribeltz nahiz koloretan. Epea: apirilak 19.
- Urruzuno Literatur Lehiaketa, 92-93 ikasturtean Irakaskuntza Ertainetan diharduten ikasleei zuzendua. Prosaz nahiz poesiaz, bertso paperak barne. Euskaraz, gai librea. Epea: apirilak 26.

**“Alkohola ez da ona. Hemen jende guztiak edan behar du eta gazteak nagusiei esker ikasten hasten dira”.**

**MOHAMED SAID  
16 URTEKO EMIGRANTE  
MAROKKOARRA  
EGUNKARIAN**



**Informazio gehiago:  
GAZTE ZERBITZUA  
Tfnoa: 77 00 65**

## Z E R N A H I A G O ?

## Ana Mari Altuna

## Altuna drogeriakoa



- **Usain on bat?** Dendan dudan edozein perfumek usain ona du. Baina niri Rochas gustatzen zait batez ere.
- **Eta txar bat?** Agua fuertea, adibidez.
- **Konplexurik badaukazu?** Ez, sekula ez dut izan.
- **Agendarik erabiltzen duzu?** Ez, badakit ohitura txarra dela, baina ez dut erabiltzen.
- **Aste Santuetan nora joango zara?** Herrian geratuko naiz, urtero bezala.
- **Musika tresna bat?** Niri akordeoia gustatzen zait, beharbada hemengoa delako.
- **Zer gustatuko litzazuke atearen zirritutik ikustea?** Etxeko tinbrea entzuten dudanean, senitarteko bat.
- **Gorrotatzen duzu norbait?** Ez inor ere ez. Beharbada etxekolanak egitea.
- **Urrea ala zilarra?** Urrea. Ez dakit zergatia, baina beti gustatu izan zait. zilarra baino gehiago
- **Garizumako elizkizunak jarraitzen dituzu?** Ez, aspaldi orain baino gehiago jarraitzen nituen.
- **Zer egingo zenuke loteria tokatuz gero?** Ene! gauza asko. Beharbada denda itxi, berrikuntzak egin edo oporrak hartu.
- **Gustatzen zaizu gaez irtetea?** Ez, egunez asko baina gaez bat ere ez.
- **Dibortzioaren alde zaude?** Beste batzuentzat beharbada bai, baina hori ez da niretzat.
- **Lore bat?** Klabelina.
- **Ordu aldaketa ondo iruditzen zaizu?** Bai, niri bai behintzat, argi-ordu gehiago izatea ondo dago.
- **Telenobelak ikusten dituzu?** Ez, oso gutxi.
- **Zenbat ezkontzatarra gonbidatu zaituzte aurten?** Momentuz, bat ere ez dut.

## BERTSOAK

## LAZKAO TXIKI GAIXO

Lazkao Txiki gaixo daukagu ta triste Euskal Herria. Gorputz txikia izanagatik hutsune izugarria urtero gisan jaiak eskeintzen badator udaberria ta bertso saio denetan gertu txikiarentzat aulkia.

Gai denentzako edozein saltsa sortzen zaio ari berez zein zokotatik aterako den antz ematen ez da errez triste daudenak parrez ipini parrezaleak negarrez Amurizaren bertso legea harek bazekien aurrez.

Ipuin ta bertsoz umore sortzen Jose Migel da abila bilera alai bat nahi dugunean asko goaz bere bila guztientzako irriparrea eta joera umila Euskadi bere zain dago eta bizkor sendatu dedila.

AGERRE



# URONDO

## elektrizitatea

- \* **Elektragaiak**
- \* **Instalazioak**
- \* **Automatismoak**
- \* **Argiztapena**
- \* **Bobinaketak**
- \* **Proiektuak**

Musakola auzoa, 26. Kataide Industrialdea 5. Pabiloia. 214 postakutxa

Tfnoak: 79 78 15 / 77 10 42 Faxa: 77 14 76

ARRASATE

# Milagros Rodriguez

## Sexualitate tailerren arduradun

Heldu eta gazteei zuzenduriko sexualitate tailerrak zuzentzen ditu Milagrosek. Informazio sexual eta plangitza familiarreko monitoria da, eta orain arte sexualitateko mintegi eta beste ikastaro batzuk zuzendu ditu Gazteizen.

— Zeintzuk dira tailer hauen helburuak?

— Objektiboak aztertzerakoan, gazte eta helduen tailerrak, biak hartu behar dira kontutan, helburuak desberdinak direlako. Gazteekin beharbada "Ez" esaten ikastea, horrek ekar dezakeen ondorioekin, izan daiteke inportanteena: kalte egingo dizunari ezetz esatea, txantaje sentimentalei ezetz, bakoitzak sortu ez dezakeneri ezetz esatea... Hau da, ez da formazio sexuala kontutan hartzen bakarrik, horretarako gizaki bakoitzaren formazioa ere aztertu behar delako. Eta helduek, gurasoek, bestalde, bere helburuak markatzen dituzte, ia beti euren seme-alabei zuzenduta. Baina klase hauen helburua ez da hori, seme-alabekin aholkuak eta esperientziak konpartitzeko bakoitzarenak aztertu behar dira, norberaren sentimenduen ziurtasuna lortu behar da lehendabizi.



— Zenbat jende interesa da tailer hauetan?

— Gazteekin hiru talde osatu dira eta lau helduekin. Hori bai, askoz ere interes handiagoa jarri dute neskek. Beharbada, mutilen aldetik beti egon delako beste jarrera bat. "Nik badakit jakin beharrekoa. Zer erakutsiko dit niri emakume batek, bada?" eta horrelako jarrerak oso zabalduta daude mutilen artean. 20 ordutako tailerra da, ekainean bukatuko da, eta interes desberdineko gaiak tratatuko ditugu: autoestima pertsonala, emakumeen hilerokoa, fantasia sexualak, bakoitzaren etapa sexualak, beldur sexualak, forma sexual desberdinak, gaixotasunak...

— Tratatu diren gaietaz hitz egiteko, taldekideen

arteko konfidantza beharko da?

— Beno, nik ez dut esijitzen klase hauetan jendearen inplikazio zuzenik. Batez ere, errespeto, adiskidetasun giroa lortu nahi dut eta maila horretan bakoitzaren esperientziak kontatzen badira eta gaiari gauza gehiago aportatzen badiote, askoz hobe. Baina, beti ere besteen aldetik, sekretua gordez, noski.

— Gasteizko esperientzia ezagutzen duzu. Antzerakoa da?

— Ez, antzerakoak bai baina beharbada desberdinak ere bai. Gasteizen ere urtero urtero tailer eta seminario batzuk antolatzen dira sexualitate gaiak aztertzeko. Arrasateko hau tailerretan izan dudan lehen esperientzia da. Orain arte eman ditudan klaseek askoz ere denbora gutxiago iraun izan dute, baina 20 ordutan gauza asko azter daiteke; niretzat desafio bat izan da. Toxikomanoekin, gizakia helburuko partaideekin, adin guztietako ikasleekin, gurasoekin... jende mota guztiekin egin izan dut lan, baina ez hainbeste ordutan. Eta beharbada, maila horretan desberdinak direlako etorri naiz Arrasateko hauek zuzentzera.

## Deba Garaiko eskola arteko abesbatzen VI. topaketak

Bihar, apirilak 3, San Frantzisko Xabier ikastolak, Arrasateko Udalak eta Lankide Aurrezki Kutxak antolatuta, Deba Garaiko Eskola arteko abesbatzen VI. topaketak burutuko dira. Ikastetxe desberdinetako 13 ikasleen abesbatzek hartuko dute parte: Almen, Umezaintza, San Frantzisko Xabier Ikastola, Erguin eskola, San Viator, Aranzadi ikastola, Txantxiku ikastola... Jaialdiari amaiera emateko, Arrasateko Euskal Musika Dantza taldearen eskutik trikitulariak, gaiteroak, txistulariak, Arrasate Musikaleko metal taldea eta Lore Gazteak eta Arrostitz taldeak hartuko dute parte. Deba Garaiak eta Arrasatek konkretuki abesbatzarekiko izan duen zaletasuna haurrengan sendotzea da topaketa hauen helburua.



**Begoña**

lurrindegia

Drogeria  
Jostailuak  
Opariak

Gipuzkoa Etorb. 33,  
Musakola Auzoa,  
Tfnoa: 79 03 73

.....  
**ELEKTRONIKA  
ARTIKULUEN  
SALMENTA**  
.....

**BAZAR**  
TOKI ON

J. Carlos Guerra, 1 Tfnoa: 79 91 64 ARRASATE

**FELIPE  
MADINA  
ZURAK**

Zarugalde, 40 ARRASATE  
Tfnoa: 79 13 78



## MITOLOGIA

## MARI (I)

Euskal Herriko eta beste herrialde batzuetako numen edo izpiritu-  
tuen eginbehar eta ezaugarri gehienak bereganatu dituen emakumezko izakia da. Beste numen guztien buruzat daukate. Oraingo bere izenetan zaharrena MARI dela dirudi. Hitz honek— andre esan nahi du toki batzuetan— beti darama izen-lagun bezala, herri bakoitzaren ustez agertu ohi den leize edo mendiren baten izena.

Itxura ugari eta desberdinak hartzen ditu elezaharretan: andre apain bezala, sua darion emakume baten itxuran, ahari gainean dabilen andrea, mota guztietako abere gisa, zuhaitz, haize-bolada, suzko bola, suzko igitai... dena dela, itxura guztiok gorabehera, Mari emakumea da. Halabaina, lurpekoei dagozkien elezaharretan agertzen zaizkigun zezen, ahari, aker, zaldi, suge, sai eta beste abere irudiak, Mari eta bere menpekoen itxurapenak baizik ez dira.

LIHER LARREA



Korrika eguna aurretik, makina bat ekintza burutu dira.

## Korrika 8, jende askoren lana


**Korrika 8** atzo ostegunetz pasatu zen Arrasateetik, jende askoren partaidetzaz pasatuko zela pentsa daiteke; Korrikaren aurreko edizioetan horrela gertatu izan da behintzat. Korrikak, beste herrietan bezala, minutu gutxi batzuetan egiten du Arrasateko pasabidea, baina hori gerta dadin, jende askoren lana dago atzetik.

Korrikaren zortzigarren edizio honen antolatze lanak, orain hilabete pare bat hasi ziren gutxi gorabehera, Erdu-AEK euskaltegikoak Aitor Okinarekin harremanetan jarri zirenean.

Aitor Okinak, Deba Garaian Korrika antolatzeko konpromezua hartu zuen. Bere lehen egin beharra Korrika-Batzordea sortzea izan zen, horretarako ahoz-ahoko harremanak erakunde desberdinekin, kartelen bidez egingako deialdi zabal bat eta kultur elkarte guztiei bidalitako gutun batetaz baliatu zen. Lehen bilerara hamabost lagun agertu ziren gutxi gorabehera; Korrika-batzordea osatu eta lanean hasi ziren. Aipatutako lanaren ondorioz, Korrikaren inguruan azken asteotan burutu den ekintza piloia eta atzo bertan pasatu

zen Korrikako kilometroen banaketa.

Arrasatekoaz ezezik, Erdu-AEK euskaltegiak izendatutako Korrika arduradunak inguruko herrietako euskara taldeekin harremanetan jarri behar izan du. Hala ere, inguruko herrietan antolatu diren ekintzen ardura zuzenik ez du izan Aitor Okinak, oinarrian informazioa eman eta materiala eramanez, herri bakoitzeko euskara taldeak izan baitira bultzatzaile, eta horrelako talderik ez zegoen tokietan betidanik Korrika-ren antolamenduan parte hartu dutenak.

Elektroinjekzio  
Zerbitzua

## ARRASATE KONPONKETAK

Zaldispes kalea, 5 Tfnoa: 79 95 41  
ARRASATE

## HIES EKIMENA

Astelehen, astearte  
eta ostiral  
5etatik 8etara.

Tfnoa: 79 26 99

ARRASATE  
PRESS

HARPIDETZAK




77 05 65

• ESAERA ZAHARRA •

*“Egiazko aizkolaria buruz nagusitzen da, indarrez baino gebiago”*

• JEROGLIFIKOA •



Lurra goldatzeko tresna.

• GURUTZEGRAMA •

1	2	3	4	5	6	7
8						
9			10		11	
12			13	14		
15			16			
17		18			19	
20				21		

J. B. AGORRIA

**Horizontalak** 1. Etorbide. 8. Zaldibarko Futbito txapelketako ekipoa. 9. Oinarri-zko edaria. 10. Pisuhil. 12. Mahatsetik lortzen den edaria. 14. (Ald.) Jatorri atzizkia. 15. Angolako hiriburua. 17. Danimarkako ibilgailuetan. 18. Ezkontsaria. 20. Trebe. 21. Fleming, “007” sortu zuen.

**Bertikalak** 1. Ikaraldi. 2. Gatazka. 3. Lerro. 4. Esnatu aurretik. 5. Zenbakien zerrandan lehena. 6. Beldurti. 7. Oherarazi. 11. Eguzkiaren jaingo egiptiar. 13. Ongi. 16. Musika nota. 19. Eusko Alkartasuna.

• HOROSKOPOA •

**Aries** Azterketak gainditu ez dituzulako al zaude horren goibel? Tranki, tronko!

**Taurus** Zure informatikako maisua zuk uste baino azkarragoa da.

**Gemini** Zurekin aurkitzen ez naizen egunak tristeak dira.

**Cancer** Jar itzazu tapoiak belarrietan zure amaren bronkak ez entzuteko.

**Leo** Ez ezazu hitzegin pertsona ezezagunekin.

**Virgo** Ile horiekin sorgina dirudizu.

**Libra** Gidatzeko karneta ken diezazukete. Kontuz!


**Scorpio** Tentelkeria bakoitzak bere ordaina balu...

**Sagitarious** “Kuadrilako” lagunek ez zaituzte batere atsegin.

**Capricorn** Ikasketak aldapan gora joango zaizkizu. Zergatik ote?

**Aquarius** Dentistarengana joateko premia galanta duzu.

**Piscis** Pertsona guztiak zu bezain txotxoloak balira...



**KÖMMERLING**  
PVCzko leihogintza


Markulete Industrialdea, 20. pabiloia  
Tfnoak: 79 24 12 eta 79 97 95 ARRASATE



**Salterain**

Ezagutu itzazu PVCren bitartez gaur egun eskura dauzkazun leiho miresgarriak, ez hotsik, ez berorik, ez soinurik...

• JOSE MANUEL ALVAREZEN GOMENDIOA •



Juan Luis Guerraren azken diska gomendatu nahi digu Jose Manuelek, "El costo de la vida" izeneko. Diska alaia eta mugitua da, kritika sozial indartsua baina alaia egiten duena. "Merengea da, eta dantzarako ere oso egokia, dantza egitera gonbidatzen duen musika". Jose Manuelen ustez, Arrasaten aspaldian ez dago era horretako girorik, "Chelsea itxi zigutenetik, akabatu egin gaituzte". Aspaldian bera ere geldirik egon da dantza kontuetan, eta berriro ere zerbait pentsatzen hasteko garaia iritsi zaiola dio. Ikusiko da zer asmatzen duen...

• PROGRAMAZIOA •



4 Igandea

8.15 Monterock  
8.45 Mondragol

5 Astelehena

1.30 Eguerdiko Berriak  
1.35 Mondragol  
7.30 Dokumentala  
8,8.30.9 Berriak  
9.30 Mondra Sport  
10.00 Asteko Zinea:  
Polizi Akademia Eroa III

6 Asteartea

1.30 Eguerdiko Berriak  
1.35 Mondra Sport  
7.30 Dokumentala

8,8.30.9 Berriak  
9.30 ATB Pub  
10.00 Asteko Zinea:  
Polizi Akademia Eroa III


7 Asteazkena

1.30 Eguerdiko Berriak  
1.35 ATB Pub  
7.30 Dokumentala  
8,8.30.9 Berriak  
9.30 Pareak Jokuan.  
10.00 Asteko Zinea:  
Polizi Akademia Eroa III

Datorren apirilaren 8tik 14ra bitartean, Aste Santuetako oporrak direla eta, ez da emisiorik egongo ATBn. Hau da, 15ean, ostegunean bueltatuko gara berriz gure programazioarekin.

• KOMIKIA •

THIRIHOI TALDEA



• SOLUZIOAK •

Lata.  
JEROGILIFIKOA  
EA.  
Eratzan, 11. Ra. 13. Ondo. 16. Do. 19.  
Iñada, 4. Lo. 5. Bat. 6. Ikarati. 7.  
Bertikalak 1. Izuaidi. 2. Berrutka. 3.  
21. Jan.  
Landa, 17. DK. 18. Dotea. 20. Iaito.  
9. Ura. 10. Tara. 12. Ardo. 14. Rat. 15.  
Horizontalak 1. Ibilbide. 8. Zuloak.  
GURUTZEGRAMA

mokasin

Zapatak eta osagarriak

Kontzeziño, 6  
Tfnoa: 76 06 78  
ARRASATE

ITSASKI

ARRANDEGIA

Arrain freskoa eta jaki izoztuak

Uribe Auzoa  
ARRASATE  
Tfnoa: 79 98 94

LIPOESKULTURA eta ZELULOLIPOLISIA

Zelulitia, grasa eta loditasuna behin betirako kentzeko.

ESTETIKA KLINIKA

Santa Kruz, 24-1a (1a eskailera)  
ARETXABALETA TFNOA: 79 13 54

HIES EKIMENA

Astelehen, astearte eta ostiralez Setatik 8etara.

Tfnoa: 79 26 99



Etxeko ekipamendu osoa

# a, eme... interiores

Garibai, 9 Tfnoa: 79 15 03 ARRASATE

